

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LAN ETA ENPLEGU  
SAILA

DEPARTAMENTO DE TRABAJO  
Y EMPLEO

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

# LAN-MERKATUAREN ERROLDA

## 2022

2005-2022 ikuspegia

2023ko irailaren 12a

*Lan eta Enplegu Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa*



## AURKIBIDEA

SARRERA.....	5
EMAITZA NAGUSIAK.....	7
I. BIZTANLERIA AKTIBOAREN BILAKAERA .....	7
Biztanleria aktiboaren bolumena suspertu da 2022an EAEko eskualde askotan, eta 2017-2019 aldiko goranzko joerara itzuli da. ....	7
1.    2017-2019 aldiko gorakada handiaren eta 2021eko biztanleria aktiboaren beherakada txikiagoaren ondoren azken aldian susperraldi bat gertatu da. Beraz, 2022ko aktiboaren bolumena 2015eko aktiboaren antzeko mailetan kokatzen da. ....	7
2.    2014tik, jarduera-tasa egonkor mantendu da .....	8
3.    2014 eta 2022 artean, alde garrantzitsuak antzematen dira biztanleria aktiboaren bilakaeran EAEko eskualdeetan. Nabarmentzekoa da Bilboko eta Bizkaia-Kostako biztanleria aktiboak izan duen hazkundea. ....	10
II. BIZTANLERIA OKUPATUAREN BILAKAERA.....	13
2021 eta 2022 artean, Euskal Autonomia Erkidegoan igo zen biztanleria okupatua .....	13
4.    2021 eta 2022 artean, okupazioa igo egin zen, 2014 eta 2022 arteko hazkunde osoa indartuz, eta 2022ko biztanleria okupatua 2005ean antzemandakoaren gainetik geratu zen.....	13
2022ko okupazio-koefizienteak aldi horretako maximo historikoa erakusten du .....	15
5.    Okupazioaren bilakaera ezberdina da eskualdeen arabera, susperraldia oso kontzentratuta egonik hirigune handietan .....	15
Okupazioaren susperraldiaren hiri-dimentsioa nabarmenagoa da Bilbon.....	18
Okupazioaren susperraldi txikixeagoa Aiaran, Bizkaia-Kostan eta Debabarrenean.....	18
2014 osteko susperraldiaren intentsitatearen eta 2007-2014ko krisialdiko okupazio-galeren arteko lotura garbia .....	20
6.    Biztanleria okupatu jarraituaren pisuak 2022an beste maximo bat lortu du, 2021eko atzerakadaren ondoren .....	20
Okupazioaren bilakaera sektore-eremuen arabera .....	22
7.    2014 eta 2022 artean, okupazioak zerbitzuen sektoreko zenbait adarretan egin du gora.....	22
8.    Okupazioaren susperraldiak izan duen eragin murrizta ekonomiaren jarduera-ardatz gehienetan.....	23
9.    Okupazioak hezkuntzan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan nahiz zerbitzu profesional eta osagarrien mota batzuetan izandako hazkundearen zeregin erabakigarria. 2022an zati batean errekueratzen dira eraikuntzako, industriako eta garraioetako galerak.....	24
10.   2022an, EAEko ekonomiaren zati oso garrantzitsu batean 2005ean zegoen hori baino % 10 baino baxuagoko okupazioarekin lotutako egoerak antzeman dira .....	27
11.   EAEko eskualdeetan, sektore atzerakorretan okupazioaren erorketak zein intentsitate duen, halakoak dira 2022an okupazioa suspertzeko mailak .....	29
2022an, 2007koen kopurutik hurbil edo hortik gora dauden okupazio-mailak kasu guztietan lotuta daude zerbitzuen sektoreko adar hedakorren okupazioan egondako aurrerapenarekin, azken hori EAEko adierazle orokorraren berdina edo handiagoa izanik. Hori da Donostialdearen, Gasteizen eta Bizkaia-Kostaren ezaugarri nagusia. ....	30
Baina zerbitzuen sektoreko adar hedakorren okupazioan egondako aurrerapen handiak ez du beti bermatzen 2022an okupazioa mantendu edo hobetzen denik 2007arekin alderatuta. Durangaldean,	

Aiaran eta Debagoiengan okupazioak beherakada handia izan du zerbitzuen sektoretik kanpoko sektoretan.....	30
Zerbitzuen sektoreko adar hedakorren batezbestekotik beherako okupazio-aurrerapenak beti lotzen dira 2022ko okupazio-maila txikiagoekin. Horixe gertatzen da Debagoiengan eta Debabarrenean, Aiaran, Bilbon, Gasteizen, Eskualdean eta Ezkerraldean eta Tolosa-Goierriin.....	31
Okupazioak industrian eta eraikuntzan izandako erorketaren garrantzia .....	31
Okupazioaren bilakaeraren beste alderdi esanguratsu batzuk .....	32
12.    2014 eta 2022 artean okupazioaren susperraldia (2022an oso txikia) metatzen duten kolektiboak .....	32
Kualifikazio altueneko talde profesionalak, bai eta jarduera ekonomikoa babesteko langilearekin eta egitura profesionalarekin lotutakoak ere .....	32
Soldatapeko kontratazioaren susperraldia, bereziki sektore publikoan.....	33
Kontratazio mugagabea .....	37
Lanaldi murriztu edo partzialaren aurrerapena 2015era arte, eta haren ondorengo erorketa.....	39
13.    Biztanleria okupatuaren diru-sarreraren masa berriz ere dago, krisiaren ostean lehen aldiz, 2005-2010 aldiko ohiko mailetan. Biztanleria okupatuaren diru-sarreraren batezbestekoa ere maila horietara hurbiltzen da ...	40
III. BIZTANLERIA LANGABEAREN BILAKAERA.....	42
2014 eta 2022 artean, langabezia murriztu egin da, 2009az geroztiko baxuenera iritsita.....	42
14.    2014tik aurrera, langabeziaren eragina murriztu da. Langabezia-tasa % 8,7ra iritsi da 2022an.....	42
15.    Okupazioaren gorakadaren ondorioz, langabezia-tasak nabarmen egin du behera eskualdeka, baina jardueraren bilakaera, oro har beheranzko joera duena, erabakigarria da eskualdeen arteko aldatetaz azaltzeko.....	46
16.    Alde handiak eskualdeetako langabezia-tasetan.....	48
17.    Murriztu egin da iraupen luzeeneko langabezia-moten eragina 2014tik aurrera, baina eragin hori krisi aurreko egoeran ikusitakoaren gainetik mantentzen da eta nagusi da langabezia osoan.....	49
18.    Adina da enplegua lortzea zailtzen duen faktore nagusietako bat. Eragindako pertsonak 40 urtetik gorakoak dira batez ere .....	52
SEXUAREN ARABERA ANTZEMANDAKO ALDAKETAK.....	57
19.    Emakumearen pisua aurreneko aldiz jaitsi da biztanleria aktiboan. Emakumeak parekidetasun-egoera batean daude, lan-merkatuan duten presentziari dagokionez .....	57
20.    2005 eta 2022 artean, emakumeen okupazioak kasu guztietan hobeto betetzen du zikloa gizonen okupazioak baino. 2022an, okupazioaren % 48,2 emakumeena da.....	59
21.    Langabeziaren eragina handiagoa da 2005-2022 aldian gizonen artean. Langabezia-tasa gehiago jaitsi da emakumeen artean azken aldian. ....	63
22.    Eskualdeko gizonen eta emakumeen langabezia-tasak antzekoak dira, baina aldeak daude eskualdeen artean. ....	65
ADINAREN ARABERA ANTZEMANDAKO ALDAKETAK.....	67
23.    Biztanleria aktiboaren zahartze-prozesuak jarraitzen du, eta 35 urtetik beherako kolektiboaren zati handi batek nabarmen behera egin du 2005 eta 2022 bitartean.....	67
24.    Biztanleria aktibo gaztea erori arren, 35 urtetik beherako biztanleriaren okupazioaren galera konparatiboki handiagoa da.....	71

25.	35 urtetik gorako pertsonen okupazioak bilakaera hobea izan badu ere, EAeko demografia bereziak esan nahi du langabezia-tasa gero eta handiagoa dela kolektibo horretan.....	76
26.	Langabeziaren eragin desberdina ageri da adin-taldeen eta eskualdeen arabera .....	79
NAZIONALITATEAREN ARABERA ANTZEMANDAKO ALDAKETAK.....		82
27.	Atzerritar jatorriko biztanleen jarduera-tasa jatorri nazionaleko biztanleena baino ia bi puntu handiagoa da.....	82
EMAITZA NAGUSIAK AZPIESKUALDEEN ARABERA (2022) .....		85
28.	Aldeak okupazio-koefizienteetan.....	85
29.	Aldeak langabezia-tasetan.....	87
LME-AREN ESKUALDE-EGITURA.....		89
ESTATISTIKA ERANSKINA .....		93

## SARRERA

Lan eta Enplegu Sailaren Estatistika Organo Espezifikoak Lan Merkatuaren Erroldaren (LME) 2022ko edizioa osatu du. Edizio honek eskaintza aztertu du bereziki. Dokumentu honetan, kontuan hartuta urte horretarako eskuragarri dauden datu berriak, Lan Merkatuaren Erroldaren (LME) emaitza nagusiak biltzen dira, jarduerari, okupazioari eta langabeziari buruzkoak.

Eskaintzaren fasean, LMEaren helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen lan-indarra ezagutzea da. Eragiketa estatistiko honen bidez, BAI edo Biztanleria Aktiboaren Inkesta eta BJA edo Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkestaren informazio orokorra osatzen da.

Testuinguru honetan, LMEak bi helburu espezifiko nagusi jorratzen ditu. Lehenik eta behin, eta lehenetsunez, LMEa lurralde historikoa baino lurralde-eremu baxuagoetan lan-indarraren eskaintza aztertzeko erreferentzia bat da. Hala, LMEak 16 eta 64 urte arteko biztanleen artean jarduerarekin, okupazioarekin edo langabeziarekin lotutako alderdi nagusiei buruzko informazioa ematen du, estatistika honen ondoretarako Autonomia Erkidegoaren lurraldea osatzen duten hamaika enplegu-arro edo -eskualdeetarako. 20.000 biztanletik gorako udalerrietan nahiz enplegu-arro edo -eskualde orokor bakoitza osatzen duten azpieskualde nagusietan, LMEak jarduerari, okupazioari eta langabeziari buruzko adierazle orokor batzuk eskaintzen ditu.

Bigarrenik, eta osagarri moduan, LMEak esangura estatistiko handiena duten lurralde-eremu desberdinen egitura sektorial eta sozio-profesionalaren hurbilketa bat egiten du, jarduerari, okupazioari edo langabeziari buruzko eragiketetan (BAI edo BJA) ohikoa den hori baino oinarri handiagoa eskaintzen baitu laginaren erreferentzian.

Hartara, LMEak aukera ematen du biztanleria-talde ez-aktiboak, langabeak edo okupatuak buruzko alderdi espezifiko batzuetan sakontzeko, Autonomia Erkidegoaren eta, hala badagokio, Lurralde Historikoen eremuan informazio gehigarria emateko asmoz. Zehazki, BJA edo BAI inkestetan gutxi aztertu ohi diren honako alderdi hauek sartzen ditu:

- \* Kualifikazio teknologikoko maila altua duten sektoreetako okupazioa.
- \* Oraintsuko okupazioko ezaugarri nagusien deskribapena (5 urtetik beherakoa).
- \* Enplegu-aniztasunaren eragina.
- \* *Langabezia adoregabea* deitzen den horren eragina (ez-aktibo adoregabeak).
- \* Lanerako prest dagoen biztanleria aktiboaren deskribapena.
- \* Biztanleriaren deskribapena azken urteko okupazio-denboraren arabera, biztanleria okupatu jarraituaren gaineko erreferentzia berezia eginda.
- \* Enplegua bilatzeko moduen eta enplegua eskuratzeko baldintza jakin batzuk onartzeko prestutasunaren, nahiz enplegua lortzeko hautemandako mugen zehaztapena (prestakuntza-mailarekin, sexuarekin, adinarekin eta nazionalitatearekin lotutako arazoei erreferentzia berezia eginda).

LMEak, halaber, jarduerarekin, okupazioarekin eta langabeziarekin lotutako ezagutza-eremu berriei buruzko informazioa ematen du. Esanguratsua da, gainera, 2005etik informazioa ematen duela EAEn bizi diren atzerriko biztanleen okupazioaren ezaugarriari eta diru-sarrerei buruz.

1993tik, LMEak aldian-aldian informazioa ematen du aipatutako alderdiei buruz. Ondorioz, lan-merkatuak EAeko eskualde, azpieskualde eta udalerrri handietan duen errealitatearen epe luzerako jarraipena egin daiteke.

Aipatutako esparrua kontuan hartuta, agiri honek 2022ko Lan Merkatuaren Erroldan aurkitutako emaitza nagusiak aurkezten ditu. Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuan epe ertain edo luzera eragina duten egiturazko joera nagusiak ere kontuan hartu dira. Horren harira, 2005 eta 2022 artean EAEn jardueraren, okupazioaren eta langabeziaren bilakaeran antzeman den dinamika aztertzen du batez ere txosten honek. Edizio honen berrikuntzetako bat zera da, jarduerari eta okupazioari buruzko informazio historikoa eguneratu duela, azken sailkapen operatiboak kontuan hartuta (EJSN-2009 eta LES-2011).

Lan Merkatuaren Errolda BJA inkestaren urteko azken hiruhilekoan egiten da, eta uneko egoera islatzen du. Emandako informazio guztia, beraz, urte bakoitzeko azken hiruhilekoari dagokio.

Izenak bestelakorik iradoki dezakeen arren, LMEa lagin bidezko operazioa da gaur egun, eta lagina 12.750 etxebizitzakoa izan da, gutxi gorabehera (2021-2023ko hirurteko taularen oinarria). Izena arrazoi historikoengatik gordetzen da.

LMEaren esplotazio estatistikoak 16 eta 64 urte arteko biztanleria du ardatz, baina 65 urtetik gorako pertsona okupatuari buruzko informazioa ere eskuragarri dago.

Emaitza nagusiak biltzen dituen txostenarekin batera doan Estatistika Eranskinaren amaieran LMEa egiteko erabiltzen diren 11 eskualde nagusiei buruzko informazio zehatza ematen da. Era berean, 11 eskualde handi horien zatiketarik eratorritako 40 azpieskualdeen osaerari buruzko informazioa ere bertan dago jasota.

2015etik, LMEaren datu-kalkulua BJA berrian erabilitako igotzearen doitze-modelo berriari egokitzen zaio, Eustaten eragiketa honetan ezarritako metodologia ardatz hartuta. 2015. urtea baino lehenagoko urteetako datuak BJA metodologia aplikatu aurreko bertsioetakoak dira.

Esan beharra dago, azkenik, 2022ko LMEaren emaitzak modu sintetikoan aurkeztu direla eta, beraz, antzemandako aldaketa nagusiak jorratu direla bereziki. Emaitza nagusien txostenarekin batera aurkeztutako Estatistika Eranskinak eragiketaren estatistika-emaitzetan xehe sakontzeko aukera emango du.

# EMAITZA NAGUSIAK

## I. BIZTANLERIA AKTIBOAREN BILAKAERA

Biztanleria aktiboaren bolumena suspertu da 2022an EAEko eskualde askotan, eta 2017-2019 aldiko goranzko joerara itzuli da.


1. 2017-2019 aldiko gorakada handiaren eta 2021eko biztanleria aktiboaren beherakada txikiagoaren ondoren azken aldiari susperraldi bat gertatu da. Beraz, 2022ko aktiboaren bolumena 2015eko aktiboaren antzeko mailetan kokatzen da.

1. taulak eta 1. grafikoak EAEn 2005 eta 2022 artean biztanleria aktiboak izan duen bilakaera laburbiltzen dute.

**1. taula. 16 eta 64 urte arteko biztanleria aktibo guztiaren bilakaera. 2005-2022 aldia  
(Datu absolutuak, jarduera-tasa eta okupazioaren urtearteko hazkunde-tasa)**

Urtea	Biztanleria, guztira Abs.	Biztanleria aktiboa Abs.	Jarduera-tasa %	Urtearteko $\Delta$ tasa (%)
2005	1.433.604	997.280	69,6	0,87
2006	1.431.183	1.002.081	70,0	0,48
2007	1.425.959	1.002.357	70,3	0,03
2009	1.451.941	1.037.659	71,5	1,75
2010	1.451.124	1.041.801	71,8	0,40
2011	1.442.831	1.041.195	72,2	-0,06
2013	1.390.977	1.046.366	75,2	0,25
2014	1.379.857	1.047.420	75,9	0,10
2015	1.371.704	1.042.697	76,0	-0,45
2017	1.372.325	1.025.697	74,7	-0,82
2018	1.370.215	1.039.054	75,8	1,30
2019	1.374.290	1.042.454	75,9	0,33
2021	1.363.127	1.037.802	76,1	-0,22
2022	1.363.252	1.042.450	76,5	0,45





2005 eta 2014 artean, EAEn biztanleria aktiboaren bilakaerak zuen joera aski islatzen da urteartean hazkunde-tasak izan duen apurka-apurkako murrizketan, 2003-2005 aldian +% 0,87 izatetik 2013-2014 aldian % 0,10 izatera. Aldi horretako batez besteko urteko igoera, hala ere, % 0,55 zen, hau da, % 5eko igoera egon da 2005eko 997.280 pertsona aktiboaren eta 2014ko 1.047.420 pertsona aktiboaren artean.


2014 eta 2017 artean, biztanleria aktiboaren bolumena erori egin da: 2017an 1.025.697 pertsona aktibo egon dira, hots 2014an baino -% 2,1 gutxiago. Hala ere, 2017tik aurrera susperraldi ekonomikoa finkatzean, aktiboaren kopuruak behin-behinean nabarmen gora egiten lagundu du. Urtearteko igoera % 1,30ekoa izan da, 2018an 1.039.054 pertsona aktibo egonik. 2018 eta 2019 artean, goranzko lerroak bere horretan jarraitu du, baina igoeraren erritmoa nabarmen apaldu da (+% 0,33), 1.042.454 pertsona aktibo izateraino. Biztanleria aktiboaren bolumena 2021ean 1.037.802 pertsonara jaitsi zen, hots, 2019an erregistratutakoa baino -% 0,22 gutxiago. Azkenik, 2022an igoera handia izan da, 1.042.450 pertsonara iritsi arte, eta horrek esan nahi du urteko hazkundera puntu erditik hurbil dagoela.

2022ko kopurua, hala ere, 2014ko pertsona aktiboaren kopurua baino -% 0,5 baxuagoa da. Urtean batez besteko -% 0,06ko igoera islatzen da 2014-2022 aldian.

## 2. 2014tik, jarduera-tasa egonkor mantendu da

Euskal Autonomia Erkidegoan biztanleria aktiboaren bolumenean 2014tik aurrera egonkortasuna antzeman da, beheranzko joerarekin. Izan ere, 16 eta 64 urte arteko biztanleriaren jarduera-tasaren bilakaeran aldaketa garrantzitsu bat egon da. 2. grafikoa ikus daitekeen bezala, aldaketa horren ondorioz amaitu egin zen jardueraren hazkunde-aldi luzea, 2005etik 2014ra bitartean.

**2. grafikoa. Euskal AEko 16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasaren bilakaera. 2005-2022 (% tan).**



Hala, 2014. urtera arte, jarduera-tasaren bilakaerak goranzko joera argia zuen Euskal Autonomia Erkidegoan. 2005 eta 2011 artean, tasa hori gorantz zihoan, apal baina etengabe: 2005ean % 69,6 izatetik 2011n % 72,2 izatera.

Aldi horretan, igoera horri esker, 16 eta 64 urte arteko biztanleria-bolumenaren beheranzko joera –2005etik aurrera antzeman zena– konpentsatu ahal izan zen. Hartara, 2005ean 16 eta 64 urte arteko 1.433.604 pertsona egotetik 2007an kopurua 1.425.959 pertsona egotera murriztu zen. 2009an gorantz egin ondoren, Euskal Autonomia Erkidegorantz egindako migrazio-mugimenduak areagotzearen ondorioz, 16 eta 64 urte arteko biztanleriak berriz ere beheranzko joera hartu zuen, 2013aren amaieran 1.390.977 pertsona izan arte. Horixe izan zen kopururik baxuena LMEa egiten zenetik (1.466.028 pertsona 1993an).

2013 eta 2015 artean, 16 eta 64 urte arteko biztanleria osoak beheranzko joera zuen, azken urte horretan 1.371.704 pertsona egonik. 2008aren osteko finantza-ezegonkortasunaren ondoriozko krisi ekonomikoaren eraginak jarduera nabarmen igotzea eragin zuen. Hala, tasa 2013an % 75,2koa izatetik 2014an % 75,9koa izatera pasa zen. Igoera horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoan 2010 eta 2011 artean antzemandako biztanleria aktiboaren lehen erorketaren norabidea behin-behinean aldatu ahal izan zen (-% 0,06), eta 2012 eta 2014 artean, aktiboaren bolumenak gorantz egin zuen, nahiz eta 16 eta 64 urte arteko biztanleriaren erorketa-lerroa finkatu.


2014. urtetik aurrera, hala ere, jarduera-tasak nabarmen egonkortu ziren, 2014 eta 2021 artean mailak % 75,8 eta % 76,1 artean egonik (salbuespen bakarra 2017an, % 74,7ra jaitsi baitzen).

Jarduera-mailetan egondako aldaketa horiek lan-merkatuaren gainean presioa egiteari utzi zioten, krisiaren lehen urteetan ez bezala (2011-2014 aldia). Gailentzen ari da 16 eta 64 urte arteko biztanleriaren beherakada (1.363.252 pertsona 2022an, eta 1.379.857 pertsona 2014an; alegia % 1,2 gutxiago), eta, testuinguru horretan, jarduera-tasaren epe ertain edo luzeko egonkortasunak iradokitzen duenez, biztanleria aktiboaren bolumenean egondako igoera nabarmenak etorkizunean batez ere EAEtik kanpoko eremutik datorren biztanleria aktiboaren ekarpenarekin lotuta leudeke.

**3. 2014 eta 2022 artean, alde garrantzitsuak antzematen dira biztanleria aktiboaren bilakaeran EAEko eskualdeetan. Nabarmentzekoa da Bilboko eta Bizkaia-Kostako biztanleria aktiboak izan duen hazkundera.**


3. grafikoan eskualdeka alderatzen da 2005-2014 aldian biztanleria aktiboaren bolumenean egondako aldakuntza, batetik, eta 2014-2022 aldian egondakoa bestetik. Azken horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan beheranzko egonkortasun-joera antzeman da. Grafikoarekin batera, oinarritzko kopuru batzuk datoz, aldakuntzen intentsitatea eta zentzua era egokian kokatzen laguntzen dutenak. Bestalde, 4. grafikoak 2005 eta 2022 artean eskualdeko jarduera-tasetan antzemandako aldaketak islatzen ditu.

Bi grafikoan azterketari esker, biztanleria aktiboaren dinamikan eskualdeen arabera egon diren alde nabarmenak antzematen dira, argi eta garbi zehaztutako motetan, biztanleria aktiboaren bolumenean eta jarduera-tasetan egondako aldakuntzen arabera.



BALIOAK	Gasteiz	Aiara	Eskualdea	Bilbo	Ezkerraldea	Bizkaia-Kosta	Durangaldea	Donostialdea	Tolosa-Goierri	Debagoiena	Debarrena	EAE
2005-2014 aldakuntza	11,3	9,6	3,4	1,2	1,1	11,2	14,0	5,2	2,0	-4,8	12,5	5,0
2014-2022 aldian	-2,8	-5,1	-4,6	3,9	0,2	2,7	-3,3	1,0	-3,8	-3,8	-5,2	-0,5
2005-2022 aldian	8,1	4,0	-1,4	5,1	1,3	14,2	10,2	6,2	-1,9	-8,4	6,6	4,5

4. grafikoa. Jarduera-tasak eskualdeka 2005ean eta 2022an



Oharra: 16 eta 64 urte arteko biztanleriari buruzko datuak.

2014 eta 2022 artean biztanleria aktiboaren bolumenean egondako beheranzko joerak eragin gehien izan duen eskualdeen artean daude Eskuinaldea, Aiara eta Debabarrena,  $-% 4,6$  eta  $-% 5,2$  arteko jaitsierak egon baitira aldi horretan. Hala ere, aipatutako azken bi eskualdeetan biztanleria aktiboa nabarmen igo zen EAeko batezbestekoaren gaineratik 2005 eta 2014 artean, aldi horretan igoerak  $\% 9,6$  eta  $\% 12,5$  artekoak izan baitziren. 2005-2022 aldirako,  $-% 1,4$ rekin, Eskuinaldean EAEn baino  $\% 4,5$  txikiagoa izan da biztanleria aktiboaren hazkunde-maila. Datu hori Aiaraldekoaren antzekoa da ( $\% 4$ ). Debabarrena, bestalde, hurbileko mailetan dago,  $\% 6,6$ arekin, Euskadiko adierazle orokorraren gaineratik.

2014 eta 2022 arteko biztanleria aktiboaren murrizketa, halaber, esanguratsua da Debagoienean, Durangaldean eta Tolosa-Goierri:  $-% 3,8$ ,  $-% 3,3$  eta  $-% 3,8$ , hurrenez hurren.

Oraintsu beheranzko joera izan duten taldeen artean sartzen da Gasteiz ere, baina, kasu honetan, biztanleria aktiboaren murrizketa txikia izan da 2014 eta 2022 artean ( $-% 2,8$ ).

Azpirarratzekoa da aipatutako zazpi eskualde horiek 2022an gailendu egin direla, EAE osoko jarduera-tasa baino baxuagoa izan dutelako, Debabarrenaren ( $\% 76,8$ ) eta Durangaldearen ( $\% 77$ ) kasuan izan ezik. Tolosa-Goierri tasa  $\% 72,7$ koa da eta Aiaran  $\% 76,4$ koa,  $\% 76,5$ eko tasa orokorraren aldean.

Jarduera-tasaren bilakaerak goranzko joerari eutsi dio 2005 eta 2022 artean, Tolosaldean izan ezik, non puntu bat baino apur bat gehiago murriztu baita ( $\% 74,4$ tik  $\% 72,7$ ra). Bitartean, tasak nabarmen egin du gora Debabarrenean, Ezkerraldean eta Bilboko eskualdean, non tasak EAeko tasa guztien gaineratik edo hurbil baitaude ( $\% 76,5$  2022an).

Bilboren posizioa aldaketa garrantzitsu bat da. 2005ean  $\% 66,7$ ko jarduera-tasa izanik, Bizkaiko hiriburua orduan EAeko  $\% 69,6$  baino ia ehuneko hiru beherago zegoen. Ezkerraldeko  $\% 66,9$ tik gertu, Bilboko jarduera-tasak Debabarrenekoa soilik gaintzen zuen ( $\% 65,8$ ). 2009 eta 2013 artean batezbesteko orokorretik hurbil dauden

mailetan egon ostean, tasa nabarmen murriztu zen berriz ere Bilbon 2013 eta 2015 artean (% 75,1etik % 71,9ra), 2018an % 76,1era igotzeko. Erregistro horrek nahiko egonkor jarraitu du 2019an eta 2022an, % 77,1eko tasarekin.

Aipatutako eskualde horietan bezala, 2014 eta 2022 artean biztanleria aktiboak gorantz egin du Donostialdean, Bizkaia-Kostan eta Bilbon. Gipuzkoako eskualde horren kasuan, biztanleria aktiboa aldi honetan % 1 igo da; bestalde, Bizkaia-Kostan % 2,7ko eta Bilbon % 3,9ko igoera egon da. Lehenengo bi kasuetan, murriztu egiten dira EAEn antzemandako % 5 baino altuagoak diren hazkundeak, biztanleria aktiboa 2005 eta 2014 artean % 5,2 igorik Donostialdean eta % 11,2 Bizkaia-Kostan. 2005-2022 aldirako igoera garbia % 14,2koa da azken eskualde horretan eta % 6,2koa Donostialdean, EAeko % 4,5 baino gorago.

Hala eta guztiz, Ezkerraldean 2014 eta 2022 artean biztanleria aktiboan % 0,2ko hazkundera egon da, hots, azken emaitzaren arabera, 2022an 2005ean baino % 1,3 handiagoa izan da biztanleria aktiboa.

Bestalde, 2014an % 77tik 2017an % 75,8ra murriztu ondoren, azken urteetan jarduera-tasa nabarmen suspertu da Debagoienera, % 77,7rekin 2018an eta % 79,2rekin 2019an. Kasu horretan, ordea, susperraldi hori eten egin zen 2021ean, % 75,3ra arte jaitsi baitzen, baina 2022an suspertu egin da (% 76,1). Jarduera-tasa horiek berretsi egiten dute EAEn 2005-2022 aldira biztanleria aktiboan egondako erorketa nagusia, aldi horretan beheranzko lerroa egonik (-% 8,4), Eskuinaldeko eta Tolosa-Goierriko murrizketen oso gaineratik (-% 1,4 eta -% 1,9, hurrenez hurren). Eskuinaldean eta Tolosa-Goierriko emaitza negatibo hori 2014 ostean biztanleria aktiboan egondako erorketa nabarmenekin lotzen den arren, Debabarrenean jatorria aurretik dator, 2005 eta 2014 artean -% 4,8ko murrizketa egon baitzen, 2017-2019 aldiko % 4,2ko susperraldiarekin konpentsatzen ez dena. Erdiko zatia 2006 eta 2009 urte artekoa da. Aldi horretan, Debagoienera -% 8,4 jaitsi zen biztanleria aktiboa.

Bizkaia-Kosta da eskualde bakarra non 2022an (2014rekin alderatuta) biztanleria aktiboaren bolumena ez dagoen lotuta EAeko % 76,5ekoa baino altuagoa den jarduera-tasa batekin. Eskualde horren % 74,4, berez, EAeko adierazlea baino % 2tik gora baxuago dago, 2005. urtean antzemandako -% 0,5en gaineratik.

Biztanleria aktiboaren bilakaeran, era berean, aipatzekoa da 2019 eta 2022 artean igoera nabarmen eta etengabea antzeman dela Durangaldea eta Debabarrena eskualdeetan. Eskualde bi horietan, biztanleria aktiboa azken bi urteetan % 2,6 eta % 2,2 igo da; kontrara, EAeko gainerako lekuetan ez dago bariaziorik.

Antzemandako aldaketa horiek hurbildu egiten dira 2013an ikusi zen jarduera-tasen bat egiteko prozesura, hamaika eskualdeetatik zortzi egonik % 75,1etik % 77,1erako tartean. 2022an, nabarmen igo dira aldakuntzak % 76,5eko adierazle orokorretik hurbil dagoen tartearen aldean, bi eskualde egonik % 74,5en azpitik (Bizkaia-Kosta eta Tolosa-Goierri) eta eskualde bat % 78ren gaineratik (Donostialdea).

## II. BIZTANLERIA OKUPATUAREN BILAKAERA


2021 eta 2022 artean, Euskal Autonomia Erkidegoan igo zen biztanleria okupatua

4. 2021 eta 2022 artean, okupazioa igo egin zen, 2014 eta 2022 arteko hazkunde osoa indartuz, eta 2022ko biztanleria okupatua 2005ean antzemandakoaren gainetik geratu zen.

2. taulak eta 5. grafikoak EAEn 2005 eta 2022 artean biztanleria okupatuak izan duen bilakaera laburbiltzen dute.

**2. taula. 16 eta 64 urte arteko biztanleria okupatuaren bilakaera. 2005-2022 aldia  
(Datu absolutuak, okupazio-koefizientea eta okupazioaren urtearteko hazkunde-tasa)**

Urtea	Biztanleria okupatua		Okupazio-koefizientea	
	Abs.		%	Urtearteko $\Delta$ tasa (%)
2005	948.180		66,1	3,02
2006	967.981		67,6	2,09
2007	970.957		68,1	0,31
2009	947.259		65,2	-1,23
2010	937.701		64,6	-1,01
2011	924.295		64,1	-1,43
2013	886.256		63,7	-2,08
2014	880.728		63,8	-0,62
2015	887.864		64,7	0,81
2017	910.965		66,4	1,29
2018	931.784		68,0	2,29
2019	942.962		68,6	1,20
2021	934.326		68,5	-0,46
2022	951.880		69,8	1,88



5. grafikoan ikus daitekeen bezala, 2005etik aurrera Euskal Autonomia Erkidegoan enpleguaren hazkunde-erritmo handia amaitzen hasi zen. 2003 eta 2005 artean % 3,02ko batez besteko urtearteko hazkundera islatu ondoren, biztanleria okupatuaren igoeraren erritmoa % 2,09 murriztu zen 2005 eta 2006 artean eta askoz bortitzago 2006 eta 2007 artean, % 0,31ko hazkundera egonik.

2008ko finantza-krisiaren ondorioak, baina baita industria bezalako sektoreen alde aurretiko dinamika konplexuak ere beren azterna utzi zuten 2007 eta 2014 artean, biztanleria okupatuaren artean jaitsiera nabarmenak eraginik. 2007 eta 2009 artean urteko batez besteko erorketa  $-% 1,23$ koa izan arren, batez ere 2008 eta 2009 artean, kopuru hori apur bat jaitsi zen 2009 eta 2010 artean ( $-% 1,01$ era). Okupazioaren beheranzko lerroak  $-% 1,43$ ra jo zuen 2010 eta 2011 artean, urtean batez beste  $-% 2,08$ ra igotzeko 2011 eta 2013 artean. Nahiz eta erorketaren intentsitatea orduz geroztik apaldu egin zen,  $-% 0,62$ koa izan zen 2013 eta 2014 artean. Guztira, 2007-2014 aldian, okupazioa murriztu egin zen, urtean batez beste  $-% 1,38$ ko erritmoan.


2014tik aurrera, okupazioaren errekupeazio-prozesu garrantzitsu bat hasi zen, hazkunde-erritmoek nabarmen gorantz egin zutelarik 2018ra arte: 2014 eta 2015 artean % 0,81, 2015 eta 2017 artean % 1,29, eta 2017 eta 2018 artean oso bereziki, % 2,29. 2018-2019 aldiak, hala ere, aldaketa bat ekarri zuen gorantzko dinamika honetara. Biztanleria okupatuak gorantz jarraitzen duen arren (% 1,20), hazkundera nabarmen moteldu da, 2017-2018 aldiarekin alderatuta murrizketa ehuneko bat baino apur bat gehiago izanik. 2015-2017 aldiko urteko batez besteko hazkundera baino apur bat beherago geratu zen.

2022ko laugarren hiruhilekoan, LMEan antzemandako 16 eta 64 urte arteko 951.880 pertsona okupatu geratzen ziren oraindik 2021eko 942.962 pertsonen gainetik (% 1,88). 2022ko erregistroa altuena da 2007az geroztik, okupazioa % 1,51 altuagoa baita, esaterako, 2010eko 937.701 pertsonen aldean.

## 2022ko okupazio-koefizienteak aldi horretako maximo historikoa erakusten du

Aipatzekoa da, dena dela, egoera horren atzean, neurri batean, bilakaera demografikoa dagoela, -% 4,91 erori baitzen 2005 eta 2022 artean EAEko 16 eta 64 urte arteko biztanleen artean. 6. grafikoan ikus daitekeen bezala, bilakaera berez positiboagoa da 16 eta 64 urte arteko pertsona okupatuaren proportzioan (okupazio-koefizientea<sup>1</sup>).

Adierazle honek 2005 eta 2007 artean izandako bilakaera ona adierazten du grafikoak, etengabe hazi baita % 66,1etik % 68,1era. Krisiaren ondorioz, bortizki erori da 16 eta 64 urte arteko biztanleriaren proportzioa (% 65,2koa 2009an). Okupazio-koefizientea % 63,7-% 63,8 artera jaitsi da 2013 eta 2014 bitartean.



Susperraldia, hala ere, gogorra da adierazle honetan, eta etengabe igo ondoren, okupatutako pertsonen proportzioa berriz ere % 68,0ra igotzen da 2018an; hots, 2007an egondako erregistroaren oso antzera. 2019an, proportzio horrek lehen aldiz gainditzen du 2007ko erregistroa, Euskal Autonomia Erkidegoan 16 eta 64 urte arteko biztanleria osoaren % 68,6koa izanik biztanleria okupatua. 2021ean, jaitsiera txiki-txiki bat gertatu da (-% 0,1), % 68,5era arte. Azkenik, proportzioa % 69,8ra iritsi zen 2022an.

## 5. Okupazioaren bilakaera ezberdina da eskualdeen arabera, susperraldia oso kontzentratuta egonik hirigune handietan

7. grafikoak 2007-2014 artean biztanleria okupatuaren bolumenaren aldakuntza eta 2014-2022 urteetako bolumenaren aldakuntza eskualdeen arabera egindako alderaketa dakarkigu; hartara, errazagoa da eskualdeen


<sup>1</sup> Okupazio-koefizientea zera da: adierazitako biztanle guztien artean (txosten honen kasuan, 16 eta 64 urte arteko biztanle guztiak) lan egiten ari diren biztanleek ordezkatzeko duten proportzioa.

Europar enplegu-tasa erabiltzen da okupazio-tasatik bereizteko (pertsona aktibo guztiei dagokienez, biztanleria okupatuaren kopurua erlazioztatzen duen tasa). Nolanahi ere, terminologia hori ez da guztiz zuzena. Izan ere, enpleguaren kontzeptua okupazioaren kontzeptuarekin parekatzen da, eta hori ez da egokia. Horregatik, LMEarako hobe da *okupazio-koefiziente* kontzeptua erabiltzea.




posizioa aztertzea, okupazioaren gainbeheraren eta susperraldiaren faseetan. Jardueraren hurbilketan gertatzen zen bezala, grafikoarekin batera, oinarrizko kopuru batzuk datoz, aldakuntzen intentsitatea eta zentzua era egokian kokatzen laguntzen dutenak. Informazio hori 8. grafikoarekin osatzen da. Bertan, eskualdeetako okupazio-koefizienteek 2007 eta 2022 artean izandako bilakaera agertzen da. 2007ko erreferentzia hartzen da, aldi bakoitzean okupazio-mailan aurrerapen handiena izan duten aldien arabera alderatzeko.

2014 eta 2022 artean okupazioaren susperraldiaren intentsitatearen eta 2007 eta 2014 arteko enpleguaren erorketa-mailaren artean dagoen harreman oro har estuaz gain, bi grafikoen azterketak aukera ematen du desberdintasun garrantzitsuak antzemateko biztanleria okupatuak eskualde bakoitzean duen dinamikan.



BALIOAK	Gasteiz	Aiara	Eskuinaldea	Bilbo	Ezkerraldea	Bizkaia-Kosta	Duranga Idea	Donostialdea	Tolosa-Goierri	Debagoiena	Debabarrena	EAE
Aldakuntza 2007-2014 aldian	-5,6	-11,4	-11,4	-13,7	-12,7	-1,8	-4,9	-8,7	-6,1	-9,3	-7,0	-9,3
Aldakuntza 2014-2022 aldian	6,2	0,2	6,9	13,9	9,5	7,5	1,4	10,3	2,6	1,2	1,9	8,1
Aldakuntza 2007-2022 aldian	0,3	-11,2	-5,3	-1,8	-4,5	5,6	-3,6	0,7	-3,7	-8,2	-5,2	-2,0

8. grafikoa. Landun-koefizienteak eskualdeka, 2007an eta 2022an



### ***Okupazioaren susperraldiaren hiri-dimentsioa nabarmenagoa da Bilbon***

2014 eta 2022 artean, okupazioaren igoera nagusiak EAEko urbanizazio-maila handieneko eskualdeetan antzeman ziren. Hartara, aldi horretan igo egin zen biztanleria okupatuaren bolumena: zehazki, % 13,9 (Bilboko eskualdeetan) eta % 10,3 artean (Donostialdean).

Kontuan hartuta okupazioan aurrerapena duten eskualdeetako okupazio berriak (denak), urbanizazio handiko eskualdeetan (hiriburuak; Bilbo Handia barne) batzen da 2014-2022 bosturtekoko 71.152 okupazio berrietatik % 90,4, 2014an biztanleria okupatuak zuen % 74,8ren gaineratik. Okupazio berriaren % 51,4 Bilbon, Ezkerraldean eta Eskuinaldean metatzen da, 2014an biztanleria okupatuak zuen % 39 baino ia hamar puntu gehiago. Aldea txikiagoa da Donostialdean eta Gasteizen: 2014 ostean sortutako okupazio berria % 39 da, hots, 2014an biztanleria okupatuak zuen % 35,9 baino hiru puntu eta apur bat gehiago.

Oso garrantzitsua da Gasteiz eta Donostialdean 2014 eta 2022 artean izandako bilakaera konparatu txarrena ez datorrela bat 2007-2014 aldian okupazio-galerek izandako eragin baxuagoarekin. Hala, -% 11,4 eta -% 13,7 arteko galerak egon diren arren Bilbo inguruko hiru eskualdeetan aldi horretan zehar, biztanleria okupatuaren bolumena -% 8,7koa izan da Donostialdean eta -% 5,6koa Gasteizen.

Ondorioz, Gasteiz eta Donostialdea dira, Bizkaia-Kostarekin batera, 2022an 2007an baino okupazio handiagoa duten EAEko eskualde bakarrak (+0,3% eta +0,7%). Aitzitik, 2022an biztanleria okupatuaren bolumena -% 5,3 baxuagoa da 2007an zegoena baino Eskuinaldean, -% 4,5 Ezkerraldean eta -% 1,8 Bilbon.

Okupazio-koefizienteei dagokienez, 2022ko datuak 2007koa gainditzen du Bilbon (% 69,6, % 65,4ren aldean) eta Gasteizen apur bat jaisten da (% 69,2tik % 69,1era igarotzen da). Igoera handia da Eskuinaldean, hiru puntu handitu baita: 2007an % 65,9 eta 2022an % 68,7. Ezkerraldean igoera hiru puntu baino gehiagokoa da (% 65,2tik % 68,5era). Era berean, Donostialdean igoera nabarmena gertatu da (% 70,8tik % 72,4ra).

Edonola ere, Donostialdeko okupazio-koefizientea EAEko % 68,5ren gaineratik dagoen arren, Bilbo inguruko eskualdeak eta Gasteiz oraindik azpitik daude.

### ***Okupazioaren susperraldi txikixeagoa Aiaran, Bizkaia-Kostan eta Debabarrenean.***

EAEko biztanleria handieneko eskualdeetan baino intentsitate txikiagoa izan arren, garrantzitsua da, baita ere, okupazioaren susperraldia 2014 eta 2022 artean, Bizkaia-Kostan. Biztanleria okupatuaren hazkundera % 7,5ekoa da eskualde horretan. Nabarmen beherago, % 0,2 eta % 2,6 arteko ehunekoarekin, gainerako eskualdeetan ere hazi da biztanleria okupatua aldi horretan. Eskualde horietan 2014 eta 2022 arteko okupazioaren igoeraren % 4 baino gutxiago batzen da, 2014an biztanleria okupatuak zuen % 22,6ren oso azpitik.

Okupazioaren erorketaren intentsitatea 2007 eta 2014 artean oso desberdina da eskualde horietan. Murrizketa txikiena Bizkaia-Kostan gertatu da aldi horretan (% 1,8)<sup>2</sup>.

Erorketa askoz nabarmenagoa da Durangaldean eta Tolosa-Goierriin (-% 4,9 eta -% 6,1). Horren ondorioz, susperraldian guztiz konpentsatzea ezinezkoa da. Beraz, 2022ko okupazioa 2007kotik aldentzen da (-% 3,6 Durangaldean eta -% 3,7 Tolosa-Goierriin).

Aiaran eta Debabarrenean, 2014-2022ko susperraldia ez da aski izan 2007-2014ko okupazio-murrizketa handiak konpentsatzeko (-% 11,4 eta -% 7, hurrenez hurren)<sup>3</sup>. 2007ko datuekin alderatuta, 2022ko okupazioa -% 8,2 baxuagoa da Debagoienez eta -% 11,2 baxuagoa Aiaran.

Atzeraldi Handian zehar biztanleria okupatuan egondako erorketek garrantzi handia izan dute aztertutako eskualde batzuetako okupazio-koefizientea murrizteko orduan. Hori gertatzen da, nabarmen, 2007an pertsona okupatuaren proportzio altua zuten eskualde batzuetan, besteak beste, Tolosa-Goierriin. Kasu horretan, erorketa % 72,6tik % 69,1era bitartekoa da 2007 eta 2022 artean, eta eskualde honek utzi egiten dio 2022an okupazio-koefiziente handienetako bat duten eskualdeetako bat izateari.

Halaber, Debagoienez okupazio-koefiziente altua egiaztatu da 2022an, % 71,6rekin, eta, hala, 16 eta 64 urte arteko pertsona okupatuaren proportzio handiena duen bigarren euskal eskualdea da, Donostialdearen ondoren. Proportzio horrek behera egiten du 2007ko % 72,2ren aldean. Horrek esan nahi du eskualde horretan okupazioaren murrizketa batez ere 16 eta 64 urte arteko biztanleriaren bolumen osoaren erorketarekin lotzen dela.

Aiarako datua oso desberdina da; izan ere, alde nabarmena dago 2007ko % 71tik 2022ko % 66,4ra, eta Aiara EAEren adierazle orokorraren azpitik dago argi eta garbi. Eskualde guztietako okupazio-daturik txikiena da.

Era berean, Debabarrena Euskadiko 2022ko okupazio-koefizientearen azpitik dago. Bizkaia-Kostako eta Durangaldeko okupazio-aurrerapenak salbu, 2005 eta 2014 artean Debabarrena zen aldi horretan okupazio-murrizketa txikiena zuen EAEko eskualdea (-% 4,0). 2019 eta 2022 artean, biztanleria okupatuaren susperraldi handiena izan duen eskualdea da. 2014an 22.288 pertsona okupatu egotetik 2017an 23.492 pertsonara igaro ondoren, urte horretatik aurrera okupazioaren lerroa beherantz joan da, 2019an 21.957 okupazioetara iritsita, hots, 2014an erregistratutakoa baino -% 1,5 gutxiago. Bestalde, 2021ean 1.322 enplegu berreskuratu ziren, 23.278 pertsona okupatura iritsi arte. Hala eta guztiz ere, azken aldian jaitsiera bat gertatu da, 22.710 pertsona okupatura iritsi arte. 2007arekin alderatuta, 2022ko zifra -% 5,2 txikiagoa da Debabarrenean.

---

<sup>2</sup> 2007 eta 2013 artean, Bizkaia-Kostan jaitsiera bat egon da, 2007ko okupazioaren -% 2,6koa. 2007 eta 2011 artean galera konparatiboki apalak jasan ondoren, 2009 eta 2010 artean urteko gehienekoa -% 2 izanik, eskualde bakarra zen zerbait errekuperatzen okupazioa 2011 eta 2013 artean, biurteko horretan urtean batez beste % 1 igota. 2013 eta 2014 artean, okupazioak apur bat gora egin zuen eskualde honetan (+% 0,87).

<sup>3</sup> Bai Aiaran bai Debabarrenean, bai eta Gasteizen ere, okupazioaren susperraldia 2013ra aurreratzen da. Joera antzekoa da, baina benetan egonkortzeko ezaugarri gehiago ditu Tolosa-Goierriin eta Durangaldea eta Bizkaia-Kosta eskualdeetan, Bizkaian.

Durangaldeko 2007 eta 2022 arteko okupazioaren erorketa dela eta, eskualde hori 2022an EAEko adierazle orokorraren azpitik kokatzen da. Bere koefizientea % 69,3koa da 2022an, hots, 2007ko % 69,4ren azpitik dago apur bat.

Aitzitik, 2022ko % 69,8k nabarmen hobetzen du 2007ko % 67,1; hori dela eta, Bizkaia-Kosta Euskadiko okupazio-koefizientearen batez bestekoan kokatzen da.

### **2014 osteko susperraldiaren intentsitatearen eta 2007-2014ko krisialdiko okupazio-galeren arteko lotura garbia**

7. grafikoari esker, edonola ere, lotura argia ikus daiteke 2014 osteko okupazioaren susperraldiaren intentsitatearen eta 2007-2008 osteko krisialdiko okupazio-galeren intentsitatearen artean.

Hala, Bilbo inguruko hiru eskualdeak nabarmentzekoak dira. Elkarrekin aztertuz gero, eskualde horiek dira okupazio gehien galdu zutenak 2007 eta 2014 artean (-% 12,9), aldi horretan galdutako okupazioen % 56,2 jaso. 2014 eta 2022 artean, gainera, eskualde hedakorretan sortutako okupazio berriaren zati handiena ere hartzen zuten, % 51,4rekin, hots, Gasteizko eta Donostialdeko % 39 gaindituz. Guztira, bi eskualde horiek 2007 eta 2014 artean okupazioaren -% 7,6 galdu zuten, galdutako okupazio garbi guztien % 28,7 bilduz.

Kontuan hartutako galera eta igoera horiek Durangalde, Tolosa-Goierri eta Debagoieneko eskualdeetan tarteko mailetan daude. Hiru eskualdeak elkarrekin aztertuz gero, 2007-2014 aldian -% 6,3an daude, 2014 eta 2022 urteen artean % 3,2 igota. Bizkaia-Kostan, bestalde, erorketa 2007-2014an apenas den -% 1,8koa, eta 2014 eta 2022 arteko okupazioaren igoera garrantzitsuarekin lotzen da (% 5,7).

Datuen arabera, edonola ere, eragina, bai igoerena bai erorketena, handiagoa da EAEko urbanizazio handieneko guneeetan. Hala, 2014-2022 aldiko okupazio berrien % 90,4 batzen da urbanizazio handieneko bost eskualdeetan, baina baita 2007-2014 aldiko galeren % 85 ere.

## **6. Biztanleria okupatu jarraituaren pisuak 2022an beste maximo bat lortu du, 2021eko atzerakadaren ondoren**


9. grafikoan ikus daitekeen bezala, 16 eta 64 urte arteko biztanleriaren artean biztanle okupatuaren pisua eta okupazioa bera suspertu ahala, 2014tik aurrera gora egin du, halaber, azken urtean zehar okupazio jarraitua izan duen biztanleria okupatuaren proportzioak<sup>4</sup>. Adierazle hori 2005ean erreferentziako biztanleriaren % 57,8 da, eta 2007an % 60,9ra igo zen. Orduz geroztik, krisiak okupazio jarraitua jaistearen eragin zuen, 2009an % 59,4ra. Hala, 2010etik aurrera 2005ean egondako erregistroak baino baxuagoak egon ziren. Krisialdiko proportzio txikiena 2014an lortu zen, % 56,5ekin.

Orduz geroztik, adierazleak gora egin zuen, eta 2015ean 2005eko maila gainditu, % 58,3rekin. Hobekuntza 2017ra arte luzatzen da, % 59,8rekin, hots, 2007ko % 60,9tik oso gertu. 2018an egoeraren ondorioz % 59,4ra jaitsi ondoren, eta % 0,3 eskas bategatik, 2019an lehen aldiz gainditzen da 2007ko ehunekoak, okupazio jarraituaren proportzioa % 61,2ra iritsita. Hala ere, 2021ean adierazlea % 59,1era jaitsi zen, eta hori da 2015etik izandako daturik txarrena. Azkenik, 2022an % 61,3ra iritsi da, serie historikoko altuena.

---


<sup>4</sup> Adierazle horrek berriaz jasotzen du 16 eta 64 urte arteko biztanleria guztiaren artean azken hamabi hilabeteetan modu jarraituan okupatuta egon den biztanleria.

9. grafikoa. Euskal AEko 16-64 urteko biztanleriaren landun-koefizientearen eta etengabeko landunak biztanleriaren proportzioaren bilakaera konparatua. 2005-2022 (% tan).



9. grafikoa ageri den bezala, okupazio jarraituaren dinamikak lotura zuzena dauka okupazio-koefizientearen bilakaerarekin. 2022ko emaitza onak, 2007ko datuekin alderatuta, kopuru altuagoak egon baitira, lotuta daude Euskal Autonomia Erkidegoko 16 eta 64 urte arteko biztanleriaren bolumen baxuagoarekin.

10. grafikoa. 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren etengabeko landunen %, eskualdeka, 2007an eta 2022an



Bestalde, 10. grafikoa okupazio jarraituaren datuak islatzen ditu eskualdez eskualde 2007 eta 2022an, eta berriz ere jartzen ditu agerian EAEko eskualdeen artean dauden alde handiak.

2022an, okupazio jarraituaren proportzioak atzera egin du; Debagoiengan (% 66,5), Tolosa-Goierrin (% 62,9), Bizkaia-Kostan (% 62,6), Donostialdean (% 62,5) eta Debabarrenean (% 62,1) dituzte mailarik altuenak.

EAEko maila orokorraren azpitik, kopurua ez da gehiegi urruntzen Bilboko eskualdean (% 61,1).

Batez bestekoaren oso azpitik ez daude Gasteiz (% 60,6), Eskuinaldea (% 60,3), Durangaldea (% 60,1) eta Ezkerraldea (% 60).

Mailarik baxuena Aiara eskualdeak du (% 58,8).


Era berean, eskualdeen arabera aldeak agertu dira 2022 eta 2007ko okupazio jarraituaren proportzioaren artean. Bilakaerarik positiboena adierazle honetan igoera duten eskualdeetan ageri da, 2022an EAEko mailak baino altuagoak lortzen baitituzte. Ezaugarri hori dute Debabarrenean (2022ko okupazio jarraitua % 62,1; 2007koa % 61,2), Debagoienean (% 66,5, % 63,6ren aldean), Donostialdean (% 62,5, % 62,4ren aldean) eta Bizkaia-Kostan (% 62,6, % 58,7ren aldean).

Okupazio jarraituaren proportzioan beherakada bat izan duten eskualdeen artean, Eskuinaldea (% 60,3, % 60,6ren aldean) nabarmentzen da. Bi edo hiru puntu inguruko jaitsiera izan da Gasteizen (% 60,6, % 62,6ren aldean), Tolosa-Goierriin (% 62,9, % 65,9ren aldean) eta Durangaldean (% 60,1 % 63,8ren aldean). Bestalde, Ezkerraldean 1,8 puntu galdu dira eta Aiaraldean 3,7.

## Okupazioaren bilakaera sektore-eremuen arabera

### 7. 2014 eta 2022 artean, okupazioak zerbitzuen sektoreko zenbait adarretan egin du gora.

Lurralde-eremuan antzemandakoaren aurka, 2014-2022an zehar okupazioaren igoera ez da automatikoki lotzen 2005 eta 2014 urteen artean galdutako sektore-enpleguaren motaren susperraldiarekin. 11. grafikoko datuek agerian jartzen dute okupazioaren erorketak eta ondorengo susperraldiak sektore-osagai oso ezberdina dutela.



Hedakorrak. Zerbitzuak: Ostalaritza, zerbitzu profesionalak, zerbitzu osagarriak, informazioa eta komunikazioak. Hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak.  
Beste batzuk. Zerbitzuak: Garraioa, merkataritza, administrazio publikoa, finantza-erakundeak, aseguruak, beste zerbitzu batzuk, etxeko zerbitzua.  
Beste sektoreak: nekazaritza eta arrantza, industria eta eraikuntza.

## 8. Okupazioaren susperraldiak izan duen eragin murrizta ekonomiaren jarduera-ardatz gehienetan

11. grafikoak adierazten duen bezala, EAEn enpleguaren oraintsuko bilakaeraren gertaerarik esanguratsuen da euskal ekonomiako sektore-eremu garrantzitsuetan 2014 osteko okupazioaren hobekuntzak eragin mugatua duela edo are eraginik ez duela. Hori bereziki nabarmena da nekazaritza eta arrantza, industria eta eraikuntzaren sektoreetan.

Azkenaldiko bilakaera oso txarra da aipatutako zerbitzuetakoak ez diren sektoreetan, oro har aztertuta. Kasu honetan, 2005ean okupazioak 352.388 pertsonatik 2006an 364.909 pertsonara igo ondoren, beheranzko joera antzeman da, eta, ondorioz, biztanleria okupatua 258.626 pertsonakoa izan da 2014an, hots, 2005eko erregistroan baino -% 26,6 baxuagoa.

2014tik aurrera, okupazioa suspertu egin da, 2018an guztira 276.307 pertsona okupatura iritsi arte. Hala ere, okupazio-bolumena apur bat jaitsi zen 2019an, 274.114 pertsonara, eta 246.368 pertsonara, berriz, 2021ean. Azken zifra hori serie historikoko txikiena zen, eta euskal ekonomiaren egiturazko aldaketa berresten du, zerbitzuen sektorearen pisuaren etengabeko hazkundean zentratua. 2022an, ordea, susperraldi handia gertatu zen: 257.045 pertsona okupatura iritsi zen.


Bolada batzuetan beherantz egin arren, besteak beste, 2005 eta 2006 artean, okupazioa nahiko egonkor egon da 2005 eta 2010 artean adar hauetan: garraioan, merkataritzan, administrazio publikoan, finantza-erakundeetan, aseguruetan, beste zerbitzuetan eta etxeko zerbitzuan. Hala, 2010eko 317.610 pertsona okupatuak 2005eko 315.680 pertsona okupatuaren antzeko kopuruak islatzen dituzte. 2010 eta 2017 artean, joera beheranzkoa da, argi eta gabi, aldi horren amaieran 284.263 pertsona okupatu daudela. 2018an okupatuak 291.942 pertsonara igo ostean, berriz ere erori ziren 286.900 pertsona okupatura 2019an. Hala eta guztiz ere, 2021ean gorakada nabarmena gertatu zen, 308.857 pertsona okupatura arte, eta kopuru horri eusten zaio 2022an. Ondorioz, okupazioa 2022an -% 2,6 baxuagoa da 2005ean zegoena baino.

Berez, okupazioa 2014 eta 2019 artean soilik igotzen da etengabe zerbitzuen sektoreko adar hedakor batzuetan, 2005 eta 2014 artean ere igo zen bezala. Hala, 2011-2013 aldia izanik salbuespen bakarra, okupazioak etengabe egin du gora 2005ean 280.113 pertsona okupatu izatetik 2019an 381.948 pertsona izatera adar hauetan: ostalaritza, zerbitzu profesionalak, zerbitzu osagarriak, informazioaren eta komunikazioen zerbitzuak, batetik, eta hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak, bestetik. Hala eta guztiz ere, 2022an jaitsiera txiki bat gertatu zen, 379.101 pertsona okupatura iritsi arte. Azkenik, azken aldian 387.430 pertsonara iritsi da, eta horixe da sortako altuena. Hau da, 2005-2022 aldi horretan okupazioan % 38,3ko igoera egon da.

2022ko okupazioa 2005ekoarekin alderatuz gero, 12. grafikoak aukera ematen du zerbitzuen sektoreko adar hedakorretan 2022an 107.317 okupazio berri biltzen direla antzemateko. Aski dira aldi horretan gainerako zerbitzuetan -8.275 okupazioaren galera eta ekonomiaren gainerako sektoreetako -95.342 okupazioaren galera konpentsatzeko. Balantzean, 3.700 okupazio gehiago daude 2022an 2005ean baino.



12. grafikoa. Biztanleria landunarenaldakuntza, jarduera-sektore handien arabera, 2005-2014 eta 2014-2022 aldietan. EAE



Hedakorrak. Zerbitzuak: Ostalaritza, zerbitzu profesionalak, zerbitzu osagarriak, informazioa eta komunikazioak. Hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak. Beste batzuk. Zerbitzuak: Garraioa, merkataritza, administrazio publikoa, finantza-erakundeak, aseguruak, beste zerbitzu batzuk, etxeko zerbitzua. Beste sektoreak: nekazaritza eta arrantza, industria eta eraikuntza.

## 9. Okupazioak hezkuntzan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan nahiz zerbitzu profesional eta osagarrien mota batzuetan izandako hazkundearen zeregin erabakigarria. 2022an zati batean errekuperatzen dira eraikuntzako, industriako eta garraioetako galerak.



13-15 grafikoez aurreko datu horiek sektoreen eta jarduera-adarren arabera zehazten dituzte. 16. grafikoez, bestalde, okupazioaren galera eta irabazi garbiak dituzten jarduera-eremuak banatzen ditu.

Alde positiboan, 2005 eta 2022 artean sortutako 107.317 okupazioen arloan egiaztatuenez, horien % 52,7 hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarretan sartzen dira (56.527 okupazio). Bigarren adar-talde esanguratsuan zerbitzu profesional eta osagarriak eta informazioaren eta komunikazioaren adarrak sartzen dira. Aldi horretan, 30.712 okupazio garbi berri sartzen dira, hots, adar hedakorren % 28,6. Gainerako % 18,7 (20.078 okupazio berri) ostalaritzarekin lotzen dira.


Esan beharra dago, hala ere, adar horietan guztietan 2022ra arte ez dela igotzen okupazioa. Ostalaritzan, okupazioan izan den aurrerakadak 2017. urtera arte jarraitzen du (urte hartan, 61.793 okupazio erregistratu ziren), baina kopurua 59.998ra jaisten da 2019an; 2022an, ordea, gorakada nabarmena izan du, 67.848 pertsona okupatu izan arte (datu hori serie historikoko altuena da).

Galerak dituzten adarretan, eraikuntzaren sektoreak -34.078 okupazio galdu ditu 2022an 2005eko okupazioa kontuan hartuta, baina ia lau mila enplegu -53.806- berreskuratu ditu 2019arekin alderatuta, eta serieko altuena da 2011z geroztik. Garai hartan galdutako okupazioen % 35,7 da. Eragin gehien jasan duen lehenengo sektorea industria da, -55.005 okupazio garbi galdurik, hots, 2005 eta 2022 artean antzemandako okupazio-galeren % 57,7, azken urte honetan izan den errekuperazioa gorabehera (+7.611 enplegu).

Hala ere, azpimarratu beharra dago industriak jasan zuela eragin gehien 2005 eta 2014 artean, aldi horretan - 53.858 okupazio jaitsi baitziren, eraikuntzako -36.632 okupazioko galeraren oso gaintetik. Aldi horretan, industrian dago adar atzerakorretan antzemandako okupazio-galeren % 44,9. Aldi berean, aipagarria da zuzendu egiten dela 2014tik aurrera galtzen diren okupazioen galera, 1.147 okupazio gutxiago izanik 2022an 2014ko datuen aldean (aldi horretan eraikuntzan irabazitako 2.553 okupazioekin alderatuta<sup>5</sup>).




<sup>5</sup> 2022ko okupazioaren egoera XXI. mendeko hamarkada berriaren lehen erdikoarekin alderatzen bada, 2001etik 2005era bitarteko okupazioaren batezbestekoa erreferentziazat hartuta, enplegu industrialaren erorketaren garrantzia argiago ageri da, alderaketa eraikuntzan okupazioak izandako hazkunderik altuena baino lehenagoko urteekin egiten baita.



Oro har, 16. grafikoa ikus daitekeen bezala, 2022an sektore atzerakorretako okupazio-galeren % 81,3, 2005eko datuen aldean, industria eta eraikuntzaren sektorean kokatzen dira. Proporzio horri beste % 5,7 gehitu dakiok, nekazaritza eta arrantzarekin lotuta dagoena. Orokorrean, zerbitzuez bestelako sektoreak aztertutako okupazio-galeren % 87,1 dira.

Aipatutako proportzioa % 93,3ra iristen da, zerbitzuen sektoreko garraioaren adarra sartzean. Adar horrek -15.731 okupazio galdu zituen 2005 eta 2014 artean; zerbitzuen sektoreko gainerako adar atzerakorretan galdutako -10.387 okupazioak baino dezente gehiago. Garraioen adarrak 8.926 okupazio erreperatu zituen 2014 eta 2022 artean. Hala ere, bilakaeraren profilak antz handiagoa dauka zerbitzuez bestelako sektoreen bilakaerarekin, okupazioaren maila gorena 2005. urtean bertan lortuz aztertutako aldi horretan. Oraintsuko bilakaerak elementu komunak ditu sektore horiekin. Hala, 2014ko 36.822 pertsona okupatuetatik aurrera okupazioak erreperatzen jarraitzen du 2018ra arte, urte horretan okupatutako pertsonak 44.315 izanik. Ondoren, okupazioa 42.883 okupaziora murriztu zen 2019an, eta gero, 45.748 enplegura igo zen 2022an.



2005etik 2022ra bitarteko okupazio-galeren % 6,7 gainerako zerbitzuen adarrekoak dira (-7.360). % 2,9 finantza- eta aseguru-adarrari dagokio, % 2,5 Merkataritzari eta % 1,3 bestelako zerbitzuei. Hiru adar horietako lehenengoak enplegu pixka bat berreskuratu du azken aldian, 540 enplegu inguru.

Aztertutako adar gehienetan, okupazio-maila altuenak 2009-2010 urteetan antzematen dira. Salbuespena beste zerbitzu batzuk atalean dago. Eremu honetan, etxeko zerbitzua barne, 2013an 67.530 pertsona okupatu egon ziren (gehieneko balioa). Krisiak okupazioa jaitea eragin zuen, 2015ean 62.272 pertsona izateraino. 2017an 66.855 okupaziora igo ostean, okupazioa jaisten hasi zen, 2019an 61.567 pertsona okupatu izan arte. Gero, 2021ean, okupazioa igo zen, 65.509 enplegu izan arte. Bukatzeko, 64.929 enpleguraino iristen den jaitsiera bat gertatu da azken aldian.

Oraintsuko dinamika antzekoa da merkataritzan. Hala, 2009ko 131.907 pertsonetatik 2017an 119.430 pertsona okupatura jaitsi ostean, okupazioak apur bat gorantz egin zuen 2018an, 122.809 pertsonaraino. Okupazioa beheko maila batean mantendu zen 2019an, 122.378 okupazioarekin, baina nabarmen handitu zen 2021ean, 130.080 pertsona okupatura iritsi arte; datu hori 2009tik aurrerako balio handiena da. Baina 2022an okupazioa jaitsi egiten da, 127.210 pertsona okupatura iritsi arte.


Bilakaera desberdina da finantza- eta aseguru-erakundeetan. 2009an gehienez 23.341 pertsona egonda okupatuta, erorketak 2017an 16.910 pertsona okupatu utzi zituen. 2018an 17.298ra igo zen; ondoren, okupazio-bolumena berriro jaitsi zen 2019an 16.875 pertsona okupatura iritsi arte, eta gora egin du 2022an 18.527 enplegura arte. Horixe da 2014tik erregistratu den kopururik handiena da.

Bilakaera bitxiena administrazio publikoarena da; okupazioaren erorketa jarraituak egon dira, 2010eko 51.934 pertsona okupatuetatik 2017ko 40.614 pertsona okupatuetera. Harrezkero, okupazioak 2022ko 50.991 okupazioetara egin du gora, 2006tik 2010era bitarteko 50.000 pertsona baino gehiagoko okupazio-mailetara itzuliz.

## **10. 2022an, EAEko ekonomiaren zati oso garrantzitsu batean 2005ean zegoen hori baino % 10 baino baxuagoko okupazioarekin lotutako egoerak antzeman dira**

17. grafikoak 2022ko okupazioaren aldakuntza islatzen du, 2005ekoarekin alderatuta. Alde positiboan antzematen denez, okupazioa hezkuntzan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan % 45,2 handiagoa da 2022an, eta ostalaritzan % 42 handiagoa. Okupazioak % 28,6 egin du aurrera zerbitzu profesionaletan, laguntzaileetan, informazioan eta komunikazioetan. Era berean, igoera nabarmena izan da Administrazio Publikoan (% 13,1).

17. grafikoa. Euskal AEko bitarteko okupazio-aldakuntza 2005 eta 2022 artean, sektoreen eta jarduera-adarren arabera. %-tan.




Hala ere, 2022ko errekerazioa gorabehera, ekonomiako gainerako adarretan okupazioaren erorketak gailentzen dira 2005 eta 2022 artean, horietako batzuk oso handiak izanik (% 10etik gorakoak). Hala, 2022ko okupazioa 2005ekoa baino -% 22 baxuagoa da industrian, -% 12,9 garraioetan, -% 14,5 finantza- eta aseguru-erakundeetan, -% 44,1 nekazaritzan eta arrantzan eta -% 38,8 eraikuntzan.

Bestelako zerbitzuetan, beheranzko joera ez da oso garrantzitsua aztertutako aldian, 2022ko okupazioa -% 2,2 txikiagoa izan baita, eta -%2,1 txikiagoa merkataritzan.

Aipatutako datuek adierazten dutenez, 2008ko finantza-turbulentzien inguruan kokatutako aldiko okupazio-krisiak arrasto iraunkorra uzten du zerbitzuetakoak ez diren sektoreetan eta garraioen adarrean, 18. grafikoa ikus daitekeen bezala, sektore horietako okupazioak 1993 eta 2022 artean izan duen bilakaerari erreparatuz gero. 2014az geroztik hobera egin arren, 2021eko okupazioa 1993ko zifretatik behera mantendu zen (urte hura izan baitzen LMEa garatu zen lehenengo urtea), serie historikoko gutxienez iritsi arte. Hala ere, 2022an okupazioa errekeratu egin da, 2013koen antzeko balioetara iritsi arte.

18. grafikoa. Biztanleria landunaren bilakaera zerbitzukoak ez diren sektoreetan eta garraioan. EAE. 1993-2022 (Milaka pertsonatan)



### 11. EAEko eskualdeetan, sektore atzerakorretan okupazioaren erorketak zein intentsitate duen, halakoak dira 2022an okupazioa suspertzeko mailak

3. taulak, 2022rako eta EAEko eskualde bakoitzerako, ekonomiaren sektore-esparruekin lotzen den 2007ko okupazio osoaren aldakuntza-ehunekoa aurkezten du, bai eta okupazioari dagokionez sektore atzerakorrek eragiten duten konpentsazioa ere zerbitzuen sektoreko adar hedakorrei lotutako okupazioaren hazkundearen gainean.

Taulak erakusten du lotura estua dagoela 2022ko okupazioa berreskuratzeko ahalmenaren eta sektore-eremu atzerakorretan hautemandako okupazio-galeren eragin diferentzialaren artean. Era berean, sektore eta adar atzerakorren bilakaerak berezko garrantzia duela erakusten du, 2022an 2007arekin alderatuta okupazio-aurrerapenak hiru eskualdetan bakarrik izan baitira (Donostialdea, Bizkaia-Kosta eta Vitoria-Gasteiz)

Eskualde Hedakorrak.	Sektoreko okupazioaren aldakuntza 2007ko okupazio osoarekin alderatuta (%-tan)				Zerbitzuen sektoreko adar hedakorrei lotutako okupazioaren hazkundearen konpentsazioa (%-tan)		
	Zerbitzuak	Beste batzuk. Zerbitzuak	Beste sektore batzuk	GUZTIRA	Beste batzuk. Zerbitzuak	Beste sektore batzuk	GUZTIRA Atzerakorrak
Debarrena	7,5	-5,6	-7,1	-5,2	-74,3	-95,1	-169,4
Aiara	9,2	0,8	-21,2	-11,2	8,9	-231,0	-222,1
Bilbo	7,2	-1,2	-7,7	-1,8	-16,6	-108,1	-124,7
Ezkerraldea	7,9	0,4	-12,7	-4,5	4,7	-161,1	-156,4
Eskuinaldea	2,8	3,0	-11,2	-5,3	107,5	-397,4	-289,8
Debagoiena	9,6	-3,2	-14,6	-8,2	-33,4	-152,0	-185,4
Tolosa-Goierri	9,3	-1,5	-11,5	-3,7	-16,3	-123,7	-140,0
Donostialdea	11,0	-2,4	-7,9	0,7	-21,9	-72,0	-94,0
Durungaldea	14,7	2,9	-21,2	-3,6	19,8	-144,6	-124,8

Bizkaia-Kosta	13,2	2,2	-9,7	5,6	16,4	-73,7	-57,3
Gasteiz	9,9	1,5	-11,1	0,3	15,1	-111,9	-96,8
<b>EAE</b>	9,2	-0,3	-10,9	-2,0	-2,7	-118,7	-121,4

Zerbitzu hedakorrak: Ostalaritza, zerbitzu profesionalak, zerbitzu osagarriak, informazioa eta komunikazioak. Hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak.  
Gainerako zerbitzuak: Garraioa, merkataritza, administrazio publikoa, finantza-erakundeak, aseguruak, beste zerbitzu batzuk, etxeko zerbitzua.  
Beste sektoreak: nekazaritza eta arrantza, industria eta eraikuntza.

**2022an, 2007koen kopurutik hurbil edo hortik gora dauden okupazio-mailak kasu guztietan lotuta daude zerbitzuen sektoreko adar hedakorren okupazioan egondako aurrerapenarekin, azken hori EAEko adierazle orokorraren berdina edo handiagoa izanik. Hori da Donostialdearen, Gasteizen eta Bizkaia-Kostaren ezaugarri nagusia.**

EAEko hiru eskualdetan, 2022ko okupazioa 2007koa baino altuago dago, % 0,3 eta +% 0,7 arteko aldakuntza txikiek. Hor sartzen dira Gasteiz eta Donostialdea. Bizkaia-Kostari dagokionez, gorakada % 5,6koa da.

Kasu horietan, bi elementu komun antzeman dira. Lehenengoa zerbitzuen sektoreko adar hedakorrei lotutako okupazioaren aldakuntza positibo batekin lotuta dago, EAEk 2007 eta 2022 artean zuen % 9,2 baino handiagoa baita. Bigarrena, bestalde, honako hau da: inpaktua beti da -% 7,9tik beherakoa adar atzerakorrek okupazioaren aldakuntzari egiten dioten ekarpen negatiboan, eta horren eragina ez da zerbitzuen sektoreko adar hedakorren ekarpen positiboaren % 75etik gorakoa, Bizkaia-Kostaren eta Donostialdearen kasuan.

Gasteizen kasuan, zerbitzu-sektoreko adar hedakorrak EAEko adar orokorretatik urruntzen ez diren mailetan hazten dira (% 9,9 eta % 9,2, hurrenez hurren). Era berean, adar eta sektore atzerakorren inpaktu bateratua EAE osoan ikusten denaren antzekoa da Beste sektoreetan (-% 11,1 Gasteizen eta -% 10,9 Euskadin).

Bizkaia-Kostaren kasuan, zerbitzuetakoak ez diren sektoreei lotutako -% 9,7tik gorako ekarpen negatiboa EAEko adierazle orokorra baino ekarpen negatibo txikiagoekin konpentsatzen da zerbitzuen sektoreko adar atzerakorretan (% 2,2).

**Baina zerbitzuen sektoreko adar hedakorren okupazioan egondako aurrerapen handiak ez du beti bermatzen 2022an okupazioa mantendu edo hobetzen denik 2007arekin alderatuta. Durangaldean, Aiaran eta Debagoienean okupazioak beherakada handia izan du zerbitzuen sektoretik kanpoko sektoreetan**

Hala ere, zerbitzuen sektoreko adar hedakorrei lotutako okupazioaren aurrerapen handiak ez du beti bermatzen 2022an okupazioa hobetzea edo egonkortzea 2007arekin alderatuta. Hala gertatzen da Durangaldean, nahiz eta 2007an zerbitzuen sektoreko adar hedakorretatik zetorren okupazio-ekarpena asko handitu zen (% 14,7).

Egoera hori azaltzen duen ezaugarri nagusia zerbitzuetatik kanpoko sektoretako okupazioaren ekarpen negatiboari lotuta dago; -% 14,6 Debagoienean eta -% 21,2 Aiaran eta Durangaldean (eskualdeetan zifra handienetakoak dituztenak). Debagoienaren kasuan ere, zerbitzuen sektoreko adar atzerakorrei lotutako -% 3,2ko ekarpen negatibo handia ikusten da.

Debagoienak okupazioaren -% 8,2 galdu zuen 2022an, 2007arekin alderatuta, baina gainerako zerbitzuetan okupazioaren beherakadak eragin handia izan zuen: -% 11,2 murriztu zen Aiaran, 2007-2022 aldiko murrizketa handienetako bat eraginik.

Durangaldearen kasuan, zerbitzu-sektoreko adar hedakorretatik datorren 2007ko okupazio-ekarpenaren hazkundera ere handiagoa da (% 14,7). Horren arrazoa da okupazioak ekarpen negatiboa egin duela zerbitzuetakoak ez diren sektoreetan (-% 21,2). Garrantzitsua da, hala ere, zerbitzuen sektoreko adar atzerakorrei lotutako % 2,9ko ekarpen positiboa.

**Zerbitzuen sektoreko adar hedakorren batezbestekotik beherako okupazio-aurrerapenak beti lotzen dira 2022ko okupazio-maila txikiagoekin. Horixe gertatzen da Debagoiengan eta Debabarrenean, Aiara, Bilbo, Gasteizen, Eskuinaldean eta Ezkerraldean eta Tolosa-Goierri.**

EAEko eskualde horietan, zerbitzuen sektoreko adar hedakorren batezbestekotik beherako okupazio-aurrerapenak, 2007an zegoen okupazioaren % 2,8 eta % 9,9 artekoak, 2022an 2007koekin alderatuta (-% 1,8 eta -% 11,2 artekoak) nabarmen baxuagoak diren okupazio-mailekin lotzen dira, Gasteizko kasuan izan ezik (+% 0,3).

Bilakaera hori, oro har, zerbitzuetatik kanpoko sektoreetan egindako ekarpen negatibo, garrantzitsu edo gutxienez esanguratsu bati lotuta dago (-% 14,6 Debagoiengan, -% 12,7 Ezkerraldean, -% 11,2 Eskuinaldean, -% 11,1 Gasteizen eta -% 11,5 Tolosa-Goierri).

#### **Okupazioak industrian eta eraikuntzan izandako erorketaren garrantzia**

4. taulak 2007 eta 2022 artean industria- eta eraikuntza-sektoreei dagokien okupazioan hautemandako aldaketak erakusten ditu. Sektore horiek, oro har, 99.294 pertsona okupatu galdu dituzte bi urte horien artean, hots, 2007an zegoen okupazioaren % 28,5.

Termino erlatiboetan, beherakada txikiak Debabarrenean izan dira, -% 11,8koak. Gainera, baina oraindik -% 25etik behera, Tolosa-Goierriko -% 20,8, Donostialdeko % 21,6 eta Debagoieneko % 24 aipatu behar dira. Bizkaia-Kosta eta Gasteizen -% 25 eta -% 30 bitarteko galerak izan dira. Gainerako eskualdeetan okupazio-galerak -% 30etik gorakoak izan dira: % 40 Durangaldean eta % 38 Eskuinaldean.

Biztanle gehien dituzten lau eskualdeek pairatu dute industrian eta eraikuntzan izan den biztanleria okupatuaren beherakada handiena (Ezkerraldea, Bilbo, Donostialdea eta Gasteiz); bi sektore horietan, 2007 eta 2022 artean okupazio-galaren % 60,8 gertatu da.

	2007	2022	Aldakuntza 2007-2022 aldian	2007ko aldakuntzaren/okupazioaren %	Aldakuntzaren banaketa (%-tan)
Ezkerraldea	61.825	40.886	-20.939	-33,9	21,1
Durangaldea	28.176	16.886	-11.290	-40,1	11,4
Bilbo	38.658	27.156	-11.502	-29,8	11,6
Eskuinaldea	21.114	13.080	-8.034	-38,1	8,1
Aiara	9.246	5.795	-3.451	-37,3	3,5
Bizkaia-Kosta	18.599	13.048	-5.551	-29,8	5,6
Gasteiz	47.452	34.673	-12.778	-26,9	12,9
Donostialdea	70.005	54.895	-15.111	-21,6	15,2
Debagoiena	16.176	12.297	-3.878	-24,0	3,9
Tolosa-Goierri	26.427	20.929	-5.498	-20,8	5,5
Debabarrena	10.716	9.455	-1.261	-11,8	1,3
<b>EAE</b>	<b>348.394</b>	<b>249.100</b>	<b>-99.294</b>	<b>-28,5</b>	<b>100,0</b>



## Okupazioaren bilakaeraren beste alderdi esanguratsu batzuk


### 12. 2014 eta 2022 artean okupazioaren susperraldia (2022an oso txikia) metatzen duten kolektiboak

#### *Kualifikazio altueneko talde profesionalak, bai eta jarduera ekonomikoa babesteko langilearekin eta egitura profesionalarekin lotutakoak ere*

2014 eta 2022 bitartean, zuzendaritzako edo arlo teknikoko lanbideetan biztanle okupatuaren kopurua, bai eta laguntzako lan profesionaletan edo langile gisa lan egiten dutenena ere, 412.093 pertsonatik 464.569 pertsonara igo da, % 12,7ko hazkundearekin. Lanbide-talde horiek 2014-2022 aldiko okupazioaren hazkundearen % 73,9 biltzen dute aldi horretan. Hala ere, 2019-2022 aldiko hazkundea % 2,8koa baino ez da.

Gainerako lanbide-taldeetan (langile kualifikatuak eta oinarrizko lanbideak), gainerako okupazioaren igoeraren % 26,1 biltzen da. Okupatutako pertsonak 468.551 izatetik 487.095 izatera pasa dira; hala, % 4ko igoera izan zen aldi hartan. Kasu horretan, beherakada txiki bat gertatu da 2019-2022 aldian (-% 0,26)


19. grafikoak erakusten duenez, zuzendaritzako langileen, teknikarien eta laguntzako profesionalen okupazioaren goranzko joera apur bat aldatu baino ez da egin 2008. urtearen ondorengo finantza-ezegonkortasuneko aldiko okupazio-krisiaren ondorioz. Hala, 2005eko 382.706 okupazioetatik 2009ko 418.715 okupazioetara igo ondoren, gorabeheraren batekin, 2015ean lanbide-talde horietan lan egiten zuten 404.317 pertsonako krisi osteko minimoak 2005-2007 aldiko okupazioaren gainetik jarraitzen zuen. 2015etik aurrera, okupazioak nabarmen egin zuen gora, % 2ko urteko batez besteko erritmoan, eta 464.569 pertsonara iritsi da 2022an, 2005eko okupazioa baino % 21,4 gehiago.



Bestalde, 2005 eta 2007 artean 565.474 pertsonatik 578.267ra igo ondoren, okupazioa urtean batez beste - % 2,96ko erritmoan jaitsi da gainerako lanbide-taldeetan, 2014an 468.551 pertsonara iritsi arte. 2014. urtearen ondorengo susperraldia garrantzitsua da (urteko batez besteko igoera % 0,94koa izan da), baina ez da nahikoa

Atzeraldi Handiko galerak konpentsatzeko. 2021ean 487.095 pertsona baino ez ziren okupatuak, hots, 2005ean baino -% 16,2 gutxiago.

20. grafikoak erakusten duen bezala, bilakaera horrek esan nahi du kualifikatutako lanbide-taldeek eta haien laguntza-egiturak gero eta pisu handiagoa dutela EAEren okupazio osoan. Hala, kolektiboaren pisua % 40,4tik % 41,5era igo da 2005-2007 aldian, % 44,2-44,5era 2009 eta 2011 artean, eta % 45etik gorako mailetara 2013tik aurrera. 2021ean proportzio altuena lortu zuen, % 49,3ekin; 2022an, ordea, apur bat jaitsi zen, % 48,8ra arte.



Aztertutako talde handien barruan, bilakaera zertxobait desberdina da. 2005-2022 aldi osoa erreferentziatzen hartuta, okupazioaren hazkunderik handiena zuzendaritzako langileei eta teknikariei dagokie. 2005ean 185.230 pertsona izatetik 2022an 247.705 izatera igaro da, hau da, % 33,7 gehiago. Aldakuntza positiboa izan da, baita ere, baina txikiagoa, laguntzako profesionalak eta langileek osatutako taldean, 197.476 okupaziotik 216.864 okupaziora igo baitira 2005 eta 2022 artean (+% 9,8).


Gainerako lanbide-taldeetan, dinamika kaskarra da; bereziki, oinarrizko lanbideetan. Kasu horretan, okupazioak -% 18 egin du behera, 2005eko 103.521 pertsona okupatuetatik 2022ko 84.864tara igaroz. Murrizketa zertxobait txikiagoa da, baina nabarmena (-% 16), azken urtean susperraldi handia gertatu arren, langile kualifikatuen eta makina-operadoreen taldeetan (461.953 okupazio 2005ean eta 402.230 okupazio 2022an).

### **Soldatapeko kontratazioaren susperraldia, bereziki sektore publikoan**

2014-2022 aldiko okupazioaren susperraldia soldatapeko okupazioaren aurrerapenean oinarritzen da erabat. 21. grafikoak erakusten duen bezala, aldi horretan, soldatapekoak ez diren kolektiboetan okupazioa egonkor dago, eta 2014an 150.524 okupazio izatetik 2022an 149.044 izatera igaro dira, % 1eko beherakadarekin. 2019-2022 aldian, ordea, igoera % 0,32koa izan da.


Horrekin, soldatapekoak ez diren biztanle okupatuaren bilakaera-ildo negatiboa luzatzen da; izan ere, 2005ean 172.718 pertsona zeuden okupatuta. 2008aren osteko krisiaren aurreko gortaldiaren azken aldian, bolumen hori

150.088 pertsonara jaitsi zen 2009an. 2011n behin-behinean 157.249 pertsonara igo ondoren, beheranzko joerak jarraitu zuen, gorabehera batzuekin, 2018ko 146.034 okupazioetara iritsi arte. Hurrengo bi aldietan, ordea, susperraldia gertatu da, eta 2014ko mailak gainditu dira. Soldatapekoak ez diren langileen bolumena -% 12,6 txikiagoa izan da 2005. urtean baino.




Soldatapekoak ez diren biztanleen kolektiboaren barruan, ordea, bilakaera zertxobait ezberdina da. Alde positiboari dagokionez, 2014ko 21.436 pertsona okupatuetatik izandako gorakada argiaren ildotik, 2022ko 26.317 kooperatibisten aurretik 2019ko 28.496ak baino ez daude. Soldatarik gabeko biztanleria 2014ko 35.062 pertsona okupatutik 2022ko 42.158 pertsona okupatura igo da enplegatzaileen kasuan (autonomoak ez direnak). Okupazio-bolumen hori 2005ekoa baino % 40 handiagoa da, eta ia % 36 izan da 2019-2022 aldian.

22. grafikoa agerian uzten duenez, okupazioaren joera, egiturari dagokionez, beheranzkoa da langile autonomoetan eta familia-laguntzetan. Kasu horretan, finantza-krisiaren aurreko azken hazkunde-faseak efektiboan beherakada handia ekarri zuen: 117.537 pertsona okupatu 2005ean, eta 95.845 baino ez 2009an. Ordutik aurrera, okupazioaren dinamika aldakorra hasi zen, nolabaiteko joera egonkorrarekin, 2017an 95.870 pertsona egon arte okupatuta. Beheranzko joera berriro ere hartuta, 2008. urtearen aurrekoaren antzera, okupazioak murrizketa handia izan du 2022an, 80.266 pertsonara iritsi arte, hots, 2005eko erregistroaren -% 29,8 azpitik.




Soldatapeko biztanleen suspertze-prozesua, bestalde, 2013 eta 2014 artean hasi zen, enplegu publikoaren hazkundearekin. Soldatapeko kolektibo publikoa nabarmen hazi zen 2005 eta 2010 artean (129.710 pertsonatik 152.059ra), baina finantza-krisiaren ondorioak jasan zituen, eta 2013an okupazioa 136.188 pertsonara jaitsi zen. Urte horretatik aurrera, ordea, goranzko joera bati ekin zitzaion, eta 2021eko 156.810 okupazioekin amaitu zen, 2005eko okupazioa baino % 20,9 gehiago. Azkenik, azken urtean nabarmen murriztu da, 152.462 pertsona okupatura iritsi arte.



Finantza-krisiaren eragina askoz ere handiagoa eta luzeagoa da ekonomiaren eremu pribatuan, 24. grafikoa erakusten duen bezala. Kasu horretan, 90eko hamarkadako eta mende berriko lehen urteetako goraldia 2007an amaitu zen, 673.049 pertsona okupaturekin (beste egoera batean zeuden pertsonak barne). Hala ere, 2015ean, kopuru hori 589.190 pertsona okupatuetara murriztu zen, eta sektore pribatuko soldatapeko okupazioak - % 12,5eko galera izan zuen 2007 eta 2015 artean.

2015etik aurrera, sektore pribatuko soldatapeko okupazioa suspertu da, eta 2019an 641.830 pertsona okupatu izatera iritsi da, hots, 2015eko erregistroa baino % 8,9 gehiago. Hala ere, okupazio-zifra hori nabarmen murriztu

zen 2021ean, 625.948 pertsona okupatura iritsi arte. Azkenik, azken urtean nabarmen egin du gora biztanleria okupatuak 650.374 pertsonaraino, eta 2005ean baino 8.941 pertsona landun gehiago izan dira (+% 1,4).



5. taulak biztanleria okupatuaren barne-banaketan aztertutako aldaketen ondorioak erakusten ditu, lanbide-egoeraren eta enpresarekiko harremanaren arabera. Alde batetik, erakusten du ezen 2022an sektore pribatuko soldatapeko biztanleen % 68,3ko portzentajea handiagoa dela 2005ekoa baino. Soldatapekoak ez diren biztanleen pisua, berriz, askoz txikiagoa da: 2005ean, % 18,2 ziren, eta 2022an, % 15,7, puntu erdia galdua. Aldaketarik deigarriena sektore publikoko soldatako langileen kolektiboaren 2021ra bitarteko goranzko joeraren hausturari lotuta dago: 2022an okupazioaren % 16, eta 2005ean % 13,7.

Urtea	Soldatapekoak ez direnak	Soldatapeko publikoa	Sektore pribatuko soldatapekoa
2005	18,2	13,7	68,1
2006	16,8	14,1	69,1
2007	16,4	14,2	69,3
2009	15,8	15,3	68,8
2010	16,3	16,2	67,5
2011	17,0	15,8	67,1
2013	17,4	15,4	67,2
2014	17,1	15,9	67,0
2015	16,9	16,7	66,4
2017	17,0	16,0	66,9
2018	15,8	16,1	68,2
2019	15,7	16,3	68,1
2021	16,2	16,8	67,0
2022	15,7	16,0	68,3


### **Kontratazio mugagabea**

Soldatapeko biztanleen testuinguruan<sup>6</sup>, 2014 eta 2022 bitartean okupazioaren susperraldia, termino garbietan, kontratazio mugagabearen aurrerapenean oinarritzen da. Ildo horretan, aldi horretako 59.903 okupazio garbi berrien kopurua honela dago banakatuta: kontratazio mugagabeen eremuko 99.784 okupazioak gehi aldi baterako edo kontraturik gabeko 39.881 okupazioen galera. Nabarmentzekoa da bi kontratazio motek azkenaldian izan duten bilakaera desberdina. Kontratu mugagabeei dagokienez, 63.478 enplegu irabazi dira, eta, ondorioz, serie historikoko altuenera iritsi da, eta, aldiz, aldi baterako kontratazioetan edo kontraturik gabekoetan 56.313 enplegu gutxiago daude, serie historikoko baxuena.

Soldatapeko biztanleen kontratazioak izan duen bilakaera, ordea, zertxobait zehaztuagoa da epe luzeko analisian. Mugagabeko okupazioari dagokienez, alde batetik, 25. grafikoan ikusten da hazkunde handia izan duela finantza-krisiaren aurreko fasean: 570.040 pertsona zeuden okupatuta 2005ean, eta 641.041, berriz, 2009an. Atzeraldi Handiaren ondorengo okupazioaren beherakada, ordea, oso deigarria da, eta 2015era arte luzatzen da. Urte horretan, kontratu mugagabea duten soldatapekoak 551.719 pertsona ziren, eta okupazio mota hori -% 13,9 galdu zen 2009 eta 2015 artean.

2015 eta 2017 artean, gainera, okupazio mugagabearen susperraldia oso motela izan da, % 1,7ko hazkunde eskasarekin, 2017ko 561.359 okupazioetara arte. 2017. eta 2019. urteen artean soilik igo zen argi eta garbi okupazio hori, 2019an 621.791 pertsonara iritsi arte; 2017an baino % 10,8 gehiago. Hala ere, 2021ean atzerakada handia gertatu da, -% 4,93koa, eta 591.115 soldatapeko pertsonara jaitsi da. Azkenik, 2022an 654.593 enpleguko maximoa lortzen da.


2022ko okupazio mugagabea 2005ekoa baino % 14,8 handiagoa da eta 2007koa baino -% 8,7 handiagoa, eta 2009koa baino % 2,1 handiagoa da.




<sup>6</sup> Atal honetan ez da kontuan hartzen "beste egoera batean" dagoen kolektiboa soldatapeko biztanleen artean, pisu kuantitatibo txikia eta kontratu-harreman motan dituen berezitasunak direla eta.

26. grafikoak, bestalde, soldatapeko kontratazio ez-mugagabearen bilakaera erakusten du (aldi baterakoa edo kontraturik gabekoa). Finantza-krisiaren aurreko gorakadaren amaieran portaera aldakorra izan ondoren, krisi horren lehen faseek okupazio-mota horren beherakada bortitza eragin zuten,  $-%$  27,4ko beherakada 2007ko 204.973 okupazio ez-mugagabeen eta 2009ko 148.898 okupazioen artean.

2010ean 169.077 okupaziora igo ondoren, mugagabeko kontratazioak behera egin zuen berriro, eta 2013an 157.200 okupazio izatera iritsi zen. Urte horretatik aurrera, ordea, gora egin zuen berriro, eta 2017an 194.437 pertsona izatera iritsi zen. Urte horretatik aurrera, berriz hasi da beherakada, 2019an 173.566 pertsona okupatu baitzeuden, eta nabarmen suspertzen da 2021ean 191.644ko kopurura iritsi arte. Hala ere, azken aldian beherakada handia izan da 135.330 okupaziora iritsi arte, eta 2005ean baino  $-%$  32,7 txikiagoa da.




Izan ere, 27. grafikoan argi eta garbi ikus daiteke mugagabeko kontratazioak enpleguaren azken aldiko susperraldian duen zeregina; izan ere, EAEko soldatapeko biztanle guztien artean mota horretako okupazioak duen pisua jasotzen du. Ildo horretan, 2010-2013 aldian  $%$  21,5 eta  $%$  21,7 bitarteko mailekin alderatuta, kontratazio ez-mugagabeen proportzioa handitu egiten da ordutik aurrera, 2017an  $%$  25,7ra iritsi arte, 2007an  $%$  25,4aren edo 2005ean  $%$  26,1aren antzeko mailetan egonik. 2017tik aurrera soilik hasten da proportzio hori jaisten, 2019ko  $%$  21,8ra iritsi arte, 2010 eta 2013 artean ikusitako mailetatik hurbil. Gero, 2021ean,  $%$  24,5era arteko igoera gertatu da, eta 2015eko antzeko tasak berreskuratu dira. Hala ere, 2022an bat-bateko jaitsiera gertatu zen:  $%$  17,1eraino iritsi zen, 2009ko minimoaren azpitik ( $%$  18,8).



Edonola ere, kontratu mugagaberik gabeko soldatapeko biztanleei dagokienez, datu osagarri garrantzitsu bat da kontraturik ez izateko moduak pixkanaka murrizten ari direla. Hala, 2005ean kontraturik gabeko 18.572 soldatapeko pertsonatik 2019an 5.551 pertsonara jaitsi da kopurua. Hala eta guztiz ere, 2021ean gehikuntza bat osatu zen, soldatapeko 6.958 lagun izan arte. Azkenik, azken aldiaren beherazko joerari heldu zaio berriro, 3.492 enpleguko minimo historikora iritsi arte. Bilakaera hori Gizarte Segurantzako afiliatorik gabeko (edo araubide baliokideko) soldatapeko biztanleen proportzioaren beherakadarekin batera gertatu da: 2005 eta 2007 artean % 2,8-3,3 izatetik 2022an % 0,5 baino ez izatera (horixe da serie historikoko baxuena).

***Lanaldi murriztu edo partzialaren aurrerapena 2015era arte, eta haren ondorengo erorketa***

Finantza-krisia aldatzen ez duen dinamika lanaldi partzialeko okupazioaren aurrerapena da. 28. grafikoa erakusten du, alde horretatik, lanaldi partzian lan egiten duten eta lanaldi arrunt gisa 30 ordu baino gutxiago ematen dituzten eta enplegu jarraitua (ez enplegu marjinala, ez lardaskeriak) duten soldatapeko biztanleen bilakaera.




Ikus daitekeenez, eragindako biztanleriaren bolumena etengabe hazi da, 2005eko 75.681 enpleguetatik 2015eko 144.083 enpleguetara, % 90,4ko igoera egonik. Hala ere, 2015 eta 2019 artean, soldatapeko biztanle-mota



horien bolumenak nabarmen egin du behera; joera hori 2021ean aldatu zen, 115.497 okupazio izan baitziren. Hala ere, 2022an berriro egin zuen behera, 112.186ra iritsi arte (-% 22,1, 2015. urtearekin alderatuta). Hala ere, lanaldi partzialeko soldatapekoak 2005ean baino % 52,6 gehiago izan dira 2022an.

Enplegu jarraitua duten soldatapekoen artean duten pisu erlatiboari dagokionez, teorikoki lanaldi partziala duten pertsonen proportzioak etengabe egin du gora, 2005ean % 9,9 izatetik 2015ean % 19,6ko maximora. Hortik aurrera, proportzioa nabarmen murriztu da 2019an % 14,3ra iritsi arte, eta apur bat gora egin zuen 2021ean, % 14,8ra iritsi arte. Azkenik, azken aldian % 14ra jaitsi da, 2010ean lortutako proportziotik izan den minimora.



### **13. Biztanleria okupatuaren diru-sarreraren masa berriz ere dago, krisiaren ostean lehen aldiz, 2005-2010 aldiko ohiko mailetan. Biztanleria okupatuaren diru-sarreraren batezbestekoa ere maila horietara hurbiltzen da**


LMEari esker, azken hilabeteetan EAEko 16 eta 64 urte arteko biztanleria okupatuak eskuratutako diru-sarrera garbi positiboan balorazio bat egin ahal izan da, eta, beraz, jarraipena egin da bai batezbestekoaren bilakaerarena, bai diru-sarrera horien baturarena<sup>7</sup>. 30. grafikoa 2005-2022 aldian zehar erreferentziazko biztanleriaren diru-sarreraren batura edo masa kalkulatzeko informazioa ematen du, 2022ko prezio iraunkorren arabera.

Datuen arabera, 2005 eta 2010 artean, eskuratutako diru-sarreraren masa nahiko egonkor egon zen 1.527,8 eta 1.555,6 milioi euro artean, 2009ko 1.701,7 milioi euroen kasuan salbu, kasu horretan goia jo baitzen, ezohiko eran.

<sup>7</sup> Datu horiek estatistikoki esanguratsuak dira, baina kontu handiz aztertu behar dira, diru-sarrerei buruzko informazio aski ez badago horren aurka jo baitaiteke.

Maila goren horretatik lehenik eta behin 2005-2007 aldiko maila nagusietara egokitzeko prozesua hasi zen, 2010ean nabarmena (1.530,2 milioi euroekin), eta, ondoren, biztanleria okupatuaren beherakada azkarra egon zen, 2013ko 1.461 milioi euroetara.

Kopuru horrek maila horietan jarraitzen du 2015. urtera arte, eta 2014. urteko 1.459,2 milioi euroetara iritsi da. Kopuru hori 2009an lortutako maximoa baino  $-\% 14,3$  txikiagoa zen. Egoera hori, hain zuzen ere, hiru elementuren arteko konbinazioaren emaitza da: okupazioaren erorketa, biztanleria okupatuaren zati baten diru-sarreraren mailaren egokitzapena eta lanaldi partzialaren gorakada.




Okupazioa suspertu eta ekonomia hobetzean, soldataren maila nabarmen igo zen, 2019. urtean 1.602,8 milioi euroraino. Zifra hori ia egonkor mantendu da azken urteetan, 2022an 1.599 milioi izan arte.

31. grafikoa ikus daitekeenez, diru-sarreraren aldean soldata-masak izan duen erorketa txikiagoak biztanleria okupatuaren diru-sarreraren batezbestekoak bilakaera hobea izan duela esan nahi du, alderatuz gero. 2009an batezbestekoa maila gorenera iritsi zen arren (1.796,5 euro), 2005 eta 2010 arteko maila nagusia 1.678,4 eurokoa zen 2007an eta 1.724,7 eurokoa 2010ean. Garrantzitsua izan arren, diru-sarreraren batezbestekoaren erorketa (2010eko erregistroaren eta 2015eko 1.644,6 euroen artean) ez da pasa  $-\% 4,6$ tik, hots, biztanleria okupatuaren diru-sarreraren masan antzemandako  $-\% 9,7$ ko erorketaren erdia da ia.

Bestalde, 2015. urtetik 2019.era bitarteko hobekuntza ez zen hain bizia izan,  $\% 3,4$ ko aurrerapena izan baitzuen 2019ko batez besteko diru-sarreraren 1.699,8 euroetara arte. Hala ere, 2021ean beherakada handia izan zen, 1.609,4 eurora artekoa, serie historikoko baxuena. Bukatzeko, 2022an gorakada bat izan da, 1.679,8 eurora artekoa ( $\% 2,1$ eko igoera 2015-2022 aldian). Aurrerapen hau aztertutako 2015-2022 aldian erregistratutako diru-sarreraren masan egondako  $\% 9,5$ eko igoera baino askoz txikiagoa da.

31. grafikoa. Diru-sarrera garbi positiboak dituzten 16-64 urteko landunen batez besteko diru-sarrera garbien bilakaera azken hilabeteetan. EAE 2005-2022 (Eurotan eta 2022ko prezioetan)





### III. BIZTANLERIA LANGABEAREN BILAKAERA

2014 eta 2022 artean, langabezia murriztu egin da, 2009az geroztiko baxuenera iritsita.

14. 2014tik aurrera, langabeziaren eragina murriztu da. Langabezia-tasa % 8,7ra iritsi da 2022an

6. taulak eta 32. eta 33. grafikoez EAEn 2005 eta 2022 artean biztanleria langabeak izan duen bilakaera laburbiltzen dute.

Urtea	Langabeak	Langabezia-tasa	Biztanleria langabearen proportzioa	Urtearteko $\Delta$ tasa (%)
	Abs.	%	16 eta 64 urte arteko bizt. %a	
2005	49.100	4,9	3,4	-24,78
2006	34.100	3,4	2,4	-30,55
2007	31.400	3,1	2,2	-7,92
2009	90.400	8,7	6,2	69,68
2010	104.100	10,0	7,2	15,15
2011	116.900	11,2	8,1	12,30
2013	160.110	15,3	11,5	17,03
2014	166.692	15,9	12,1	4,11
2015	154.832	14,8	11,3	-7,11
2017	114.732	11,2	8,4	-13,92
2018	107.269	10,3	7,8	-6,50
2019	99.492	9,5	7,2	-7,25
2021	103.477	10,0	7,6	1,98
2022	90.570	8,7	6,6	-12,47



Ikus daitekeenez, 2003 eta 2006 artean, ekonomiaren hazkunde handiko aldia amaitzen ari zen fasean, Europako erakundearen egitura ekonomiko eta politikoetan integratzeari lotuta, langabeen beherakadaren erritmoa oso handia zen, urteko batez besteko murrizketa  $-25$  ingurukoa edo handiagoa izan baitzen. Nahiz eta apalagoa izan, beherakadaren erritmoa  $-7,9$ koa zen 2006 eta 2007 artean. Biztanleria aktiboaren joera hedakor orokorra gorabehera, bilakaera hori  $3,1$ eko langabezia-tasarekin amaitu zen 2007an, eta 31.400 langaberekin soilik.

2007tik 2009ra bitartean, biztanleria aktiboaren hazkunde handiak (urtean batez beste +1,75) bat egin zuen okupazioaren urteko batez besteko -% 1,23ko beherakadarekin, langabeziaren igoera oso nabarmena islatuz (urtean batez beste +% 69,7). Bi urte eskaseko epean, langabezia ia hirukoiztu egin zen, eta 2007an 31.400 pertsona izatetik 2009an 90.400 izatera igaro zen, % 8,7ko langabezia-tasarekin.

2009 eta 2013 artean, finantza-krisiaren eta sektore atzerakor nagusien (industria edo eraikuntza, adibidez) zailtasunen ondorioz, langabeen urteko batez besteko hazkundea % 12,3 eta % 17,0 artekoa izan zen. 2013an, langabezia-tasak berriz ere % 15eko maila gainditu zuen (% 15,3) eta 160.110 pertsonari eragin zien.

2013 eta 2014 artean biztanleria aktiboa egonkortu zen arren (+% 0,10), okupazioaren beheranzko ildoari eutsi zitzaion, maila apalagoetan (-% 0,62), 2007tik 2011ra bitarteko -% 1etik gorako zifretatik behera, eta horrek esan nahi du langabezia-tasa % 4,1 igo zela 2014an. Orduan, 2008ko krisiaren ondoren, langabezia-tasa handiena erdietsi zen: 166.692 langabe, % 15,9ko langabezia-tasarekin.

Enplegu-mailak nabarmen errekuperatu dira biztanleria aktiboaren beheranzko joera gailendu den testuinguru batean, 2017-2019 aldian izan ezik, eta, horren ondorioz, langabeziak nabarmen egin du behera. 2014tik aurrera, langabeen kopuruaren urteko batez besteko beherakadak, oro har, -% 6,5 eta -% 7,2 artekoak izan dira, nahiz eta 2015. eta 2017. urteen artean -% 13,9ko mailalara iritsi diren.

Langabezia-tasak behera egin du aldi berean, 2014ko % 15,9tik 2019ko % 9,5era, lehen aldiz XXI. mendeko bigarren hamarkadako % 10eko atalasearen azpitik eta 2009ko % 8,7tik oso gertu. 2021ean, ordea, 4.000 pertsona inguruko gorakada bat gertatu zen, % 10era iritsita. Azkenik, azken urtean nabarmen jaitsi da, % 8,7ra iritsi arte, hain zuzen ere 2009ko ehuneko berera arte. Hala eta guztiz ere, EAEko langabezia-tasa 2005etik 2007ra bitarteko % 5etik beherako mailen gainetik mantentzen da argi eta garbi 2022an, 2007an % 3,1era jaitsi baitzen.

34. grafikoak langabezia-tasaren bilakaera 16 eta 64 urte arteko biztanleriaren prestutasun-tasarekin alderatzen du<sup>8</sup>. Bilakaera guztiz paraleloa da, baina ñabardura-elementu garrantzitsu batzuk ikusten dira. Alde batetik, langabeziaren gorakada 2014an amaitu zen langabezia-tasari erreparatuz gero (% 15,9), baina 2015ean lortu zuen mailarik altuena prestutasun-tasari dagokionez (% 16,5).

---

<sup>8</sup> Prestutasun-tasa lanpostu berri bat eskuratzeko prest daudela adierazten duten pertsonen proportzioa da, jarduerarekin duten egungo harremana alde batera utzita. Hor sartzen dira langabeak, beste enplegu baten bila ari diren eta lan hori lortzeko prest dauden biztanle okupatuak, eta lanerako prest dauden biztanle ez-aktiboak. 16 eta 64 urte arteko biztanleria testuinguru honetan sartzen da.

Grafiko hori aztertzeko, garrantzitsua da kontuan hartzea langabeziari eta prestutasunari buruzko datuen hurbilketa lotuta dagoela 2011 eta 2013 artean lanerako prest dagoen biztanleria ez-aktiboaren bolumenean izandako beherakada handiarekin, eta hori lotuta dago, era berean, BJA-n eta LME-n egindako aldaketekin, okupatuta ez dauden eta lan bila ari diren biztanleek enplegua bilatzeko egiten dituzten jarduerak zehaztasun handiagoz detektatzeko. Horren ondorioz, erreferentziazko biztanlerian enplegua bilatzeko modalitate aktiboen hautematea areagotu egin zen, eta biztanleria horren zati esanguratsu bat langabetu gisa sailkatu zen.

**34. grafikoa. Euskal AEko 16-64 urteko biztanleriaren langabezia-tasaren eta prestasun-tasaren bilakaera. 2005-2022 (% tan).**



Bestalde, eta 2005etik 2007ra bitarteko fase hedakorrean gertatzen zen bezala, ukitutako pertsonen proportzioa argiago urruntzen da 2015etik 2022ra bitarteko langabezia-tasari buruzko adierazletik. Arrazoi nagusia da, 2014tik aurrera langabeen artean hautematen den beherakada jarraituan ez bezala, lanerako prest dagoen biztanleria okupatuaren bolumena (beste enplegu baten bila ari diren eta hurrengo bi asteetan lan hori lortzeko prest agertzen diren pertsonak) edo lanerako prest dagoen biztanleria ez-aktiboa nabarmen igotzen dela 2014 eta 2017 artean (46.075 pertsonatik 84.598 pertsonara), 2017tik aurrera behera egiten hasi aurretik, 2022an 42.621 pertsonara iritsi arte, 2021eko 58.578 pertsonara arteko gorakada gorabehera.


2022an, prestasun-tasa % 9,7 da, eta bi puntu baino gehiago jaitsi da 2021arekin alderatuta, eta 2009ko % 10,2aren azpitik geratu da. Zifra 2006ko eta 2007ko % 5-6ko mailetatik nabarmen urruntzen bada ere, 2005ean antzemandako % 8,1etik askoz hurbilago dago.

Kolektibo adoregabeak biztanleria ez-aktibo osoan duen proportzioari dagokionez<sup>9</sup>, 35. grafikoa jasotako bilakaerak joera hedakor argia erakusten du Atzeraldi Handiaren bigarren fasean eta 2013-2014 aldiaren ondorengo susperraldi ekonomikoaren zati handi batean.

Kolektibo adoregabearen bilakaera xehetasunez aztertuz gero, biztanleria ez-aktiboa 2005eko % 1,6tik 2007ko % 1,1era jaitsi zen. 2009an % 3,5era igo ondoren, proportzioa % 1,3ra jaitsi zen berriro 2011n, baina nabarmen igo zen ondoren, 2015eko % 5,9ra. 2017an puntualki % 4,8ra jaitsi ondoren, proportzioa % 6,3ra igo zen berriro 2018an, eta 2019an % 6,0tik hurbil samar mantendu zen. Azken aldietan, ordea, jaitsiera nabarmena izan da,

<sup>9</sup> Kasu honetan, adoregabetzearen ondorioz enplegua bilatzeari uko egin dioten langabetuen kolektiboaren bolumena da (beraz, ez-aktibo gisa sailkatuta dago).

2021ean % 1,7ra eta 2022an % 1,9ra iritsi arte. Azken urteko gorakada txikia gorabehera, 2022. urteko 6.083 kasuak 2007. urteko 4.738 pertsona ez-aktibo adoregabetu inguru dira.




**15. Okupazioaren gorakadaren ondorioz, langabezia-tasak nabarmen egin du behera eskualdeka, baina jardueraren bilakaera, oro har beheranzko joera duena, erabakigarria da eskualdeen arteko aldaketak azaltzeko**

7. taulan, 2014ko % 15,9tik 2022ko % 8,7ra langabezia-tasak izan duen beherakada nabarmenaren determinatzaileak aztertzeko behar den oinarritzko informazioa jaso da. Oro har, datuek erakusten dute biztanleria langabearen bolumenaren murrizketaren garrantzi erabakigarria: -6,8 puntuko ekarpena egin zaio EAEko langabezia-tasa orokorraren -7,2 puntuko beherakadari, eta -0,4 puntu eskas lotu zaizkio biztanleria aktiboaren aldakuntzari.

Eskualdea	Langabezia-tasa 2014	Okupazioaren aldakuntzaren eragina	Biztanleria aktiboaren aldakuntzaren eragina	Langabezia-tasa 2022	2022ko tasa-2014ko tasa
Eskuinaldea	18,2	-5,9	-3,9	8,4	-9,8
Durangaldea	14,2	-1,2	-2,9	10,0	-4,2
Aiara	17,7	-0,2	-4,4	13,1	-4,6
Donostialdea	15,3	-8,6	0,8	7,5	-7,8
Tolosa-Goierrri	10,9	-2,4	-3,6	5,0	-5,9
Ezkerraldea	18,1	-7,8	0,1	10,5	-7,6
<b>EAE</b>	<b>15,9</b>	<b>-6,8</b>	<b>-0,4</b>	<b>8,7</b>	<b>-7,2</b>
Gasteiz	16,6	-5,3	-2,4	8,8	-7,8

Debarrena	16,9	-1,7	-4,6	10,7	-6,2
Bilbo	17,7	-11,0	3,1	9,7	-7,9
Debagoiena	10,5	-1,1	-3,6	5,8	-4,7
Bizkaia-Kosta	10,4	-6,6	2,4	6,2	-4,2



Taula horretako datuen azterketa xehatuak erakusten du, hala ere, biztanleria aktiboaren bolumenean eskualdeka hautemandako aldaketa erabakigarria dela eskualdeetan dauden aldeak azaltzeko. 36. grafikoa ere alderdi horren gaineko hurbilketa egiten da.

Grafikoaren arabera, 2014 eta 2022 arteko langabezia-tasaren beherakadarik handienak honako eskualde hauetan gertatu dira: Eskuinaldean (% 18,2tik % 8,4ra, -9,8 puntu), Bilbon (% 17,7tik % 9,7ra, -7,9 puntu), Donostialdean (% 15,3tik % 7,5era, -7,8 puntu), Gasteizen (% 16,6tik % 8,8ra, -7,8 puntu) eta Ezkerraldean (% 18,1etik % 10,5era, -7,6 puntu). Zenbait eskualderen kasuan, biztanleria aktiboaren beheranzko aldaketa bat ikusten da langabezia-tasaren jaitsierara doana (ehuneko -3,9 puntu Eskuinaldean eta -2,4 Gasteizen). Tasaren beherakada handiak lotura handiagoa du kasu batzuetan biztanleria aktiboaren bolumenaren beherakadarekin (-4,5 puntu, eta Eskuinaldean, aldiz, -9,8 puntu, langabeziaren murrizketari lotuak).

Aipatutako hiru eskualdeetako langabezia-tasatik hurbil dauden aldakuntzekin, tasaren jaitsiera zertxobait txikiagoa da, baina oraindik ere nabarmena, -6,0 puntu ingurukoa, honako eskualde hauetan: Debarrenean (% 16,9tik % 10,7ra, -6,2 puntu) eta Tolosa-Goierri (% 10,9tik % 5,8ra, -5,9 puntu). Bi kasuetan, biztanleria aktiboaren hazkundearen ekarpen erlatiboa erabakigarriagoa da langabeziaren beherakadan.

Debagoieneko posizioak eragina izan du, eta horrek esan nahi du 2014 eta 2022 artean ehuneko -4,7 puntuko murrizketa izan dela langabezia-tasaren, % 10,5etik % 5,8ra jaitsi baita. Kasu honetan, ordea, jardueraren aldaketaren eraginak beherakada eragiten du langabeziaren bilakaeran: -3,6 puntu.

Aiararen kasuan, okupazioaren beherakadak langabezia-tasaren jaitsierari egindako ekarpena aurrekoaren antzekoa da (-4,6 puntu).



Bizkaia-Kostaren kasuan, jardueraren gorakadaren ekarpenean igoera (2,4 puntu) egon da, okupazioaren gorakadaren eragin positiboa askoz txikiagoa izan delako (-6,6 puntu), eta horrek langabezia-tasaren jaitsiera txikia eragiten du euskal eskualde batean –Durangaldearen ondoan–, aztertutako aldi batean: % 6,2 2022an, 2014ko % 10,4ren aldean.

Durangaldearen kasuan, jardueraren beherakada zuzenean lotuta dago jarduera-jaitsierarekin (langabezia-tasari -2,9 puntuko ekarpena egin dio), 2014 eta 2022 artean langabeziak izandako beherakadarekin (-% 4,2).

## **16. Alde handiak eskualdeetako langabezia-tasetan**

Langabezia-tasen abiapuntuko egoerak askotarikoak izan ziren 2014an, eta okupazioaren eta jardueraren bilakaeran aldaketak izan ziren. Hori dela eta, eskualdeen arabera langabezia-tasa nahiko desberdina izan zen.

2022an, langabezia-tasa txikienak, % 6tik beherakoak, Debagoienari eta batez ere Tolosa-Goierri dagozkie, % 5,8ko eta % 5eko tasekin, hurrenez hurren.

Bi kasuetan, bilakaera positiboak eragin du egungo egoera ona, baina langabezia-tasaren erorketan egindako ekarpena oro har baino txikiagoa da, eta, horrekin batera, jardueraren beherakada ere txikiagoa da EAeko beherakada orokorra baino. Horri 2014ko hasierako tasa bat gehitu behar zaio, EAeko % 15,9ko orokorra baino gutxienez bost puntu txikiagoa dena. Aldea nabarmena zen Tolosa-Goierri (langabezia-tasa % 10,9 izan zen 2014an) eta Debagoienan (% 10,5).

Debagoienaren posizioa (% 10,5ekin EAEn langabeziarik txikiena izan duen bigarren eskualdea zen 2014an) asko hobetu da 2022an, baina ez Tolosa-Goierriko erregistroa bezain beste. Okupazioak bilakaera ona izan du, nahiz eta EAeko adierazle orokorra baino apur bat beherago dagoen, biztanleria aktiboaren bilakaera zertxobait desberdina delako.

Beste eskualde batzuk ere egoera onean daude, EAeko 2022ko % 8,7 orokorraren azpian egon arren: Eskuinaldea (% 8,4), Donostialdea (% 7,5) eta Bizkaia-Kosta (% 6,2).

Debagoienaren kasuan, posizio horrek hobekuntza nabarmena dakar 2014ko % 16,9ko zifrekiko; eta lotuta dago biztanleria aktiboaren bolumenak izandako beherakada nabarmenekin, nahiz eta 10 punturen gainean dagoen (% 10,7).

Langabezia-tasa handiena duten eskualdeen artean daude, Bizkaian, Durangaldea (% 10), Bilbo (% 9,7) eta, batez ere, Ezkerraldea, % 10,5eko langabezia-tasarekin. Gainerako lurraldeetan, talde horretan sartzen dira Gasteiz (% 8,8) eta Aiara (% 13,1), 2022an eskualde mailako altuena.

Eskualde horiek guztiak, Durangaldea izan ezik, EAeko batezbestekoaren gaineratik zeuden 2014ko langabezia-tasei dagokienez, tasa horiek % 16,6 eta % 18,1 artekoak baitziren. 2014 eta 2022 arteko langabezia-tasaren murrizketa handia izan da horietan guztietan, ia beti okupazioa EAeko batezbestekotik hurbil edo hortik gora handitzen den testuinguruetan, baina jardueraren bilakaera ez da hain ona izan, dela oinarritzko egonkortzeagatik (Ezkerraldea), dela biztanleria aktiboaren goranzko joera argiagatik (Bilbo).

Bizkaia-Kostaren kasua jardueraren bilakaera positiboarekin lotuta dago. Eskualde horretan okupazioaren beherakada txikiagoa izan da, -6,6 puntuko ekarpena egin baitzaio langabezia-tasaren murrizketari, jarduera

areagotu ahala (+2,4 puntu). Horrek azaltzen du 2022ko langabezia-tasa 2014koa baino txikiagoa izatea (% 6,2 eta % 10,4, hurrenez hurren) eta langabezia-tasa txikiak dituzten eskualdeetan hautemandako mailetatik aldentzea.


Adierazitako prozesuen emaitza da langabezia-tasak eta 2014an ikusitakoak antzekoak direla; izan ere, urte hartan, XX. mendearen azken zatian ohikoa izan zena baino konbergentzia handiagoa izan zuten langabezia-tasek, 7,9 puntuko aldaketa izan baitzen Eskuinaldeko tasa maximoaren (% 18,2) eta Bizkaia-Kostako tasa minimoaren (% 10,4) artean. Langabezia-tasek beheranzko joera izan duten arren, alde hori 5,6 puntura igo da 2022an, Eskuinaldeko % 9,8aren eta Bizkaia-Kostako % 4,2ren artean.

Hirigune handietan, prozesu hori EAEko hirigune handietako langabezia-tasen antzekoa da, 2009an edo 2010ean hautematen zena, aldakuntzak % 6,4 eta % 10,8 artekoak izanik 2009an edo % 9,8 eta % 12,2 artekoak 2010ean. Hala, 2022an, Donostialdeko % 7,5eko eta Ezkerraldeko % 10,5eko tasen aldean.

Finkatu egin da, halaber, gutxien urbanizatutako eskualdeetako langabezia-egoeren aldakortasuna, alde handiagoak baitaude Tolosa-Goierriko minimoaren (% 5) eta Aiarako minimoaren (% 13,1) artean.

**17. Murriztu egin da iraupen luzeeneko langabezia-moten eragina 2014tik aurrera, baina eragin hori krisi aurreko egoeran ikusitakoaren gainetik mantentzen da eta nagusi da langabezia osoan**

37. grafikoak erakusten du langabeziaren beherakada, 2014tik aurrera, bereziki deigarria dela iraupen luzeagoko langabezia-motetan.



Grafiko horretan ikus daitekeenez, iraupen luzeko langabezia-tasa oso txikia zen 2005 eta 2007 artean: % 1,0 eta % 1,7 artekoa<sup>10</sup>. Kriariaren ondorioz, egoera horien pisua asko eta etengabe handitu da, 2014an % 10,5eko maximora iritsi arte. Orduetik aurrera, hobekuntza oso nabarmena izan da: 2017an % 6,4 izan zen, eta 2011n % 6,3 ingurukoa izan zen. Hala ere, data horretatik aurrera, beheranzko joera moteldu egin da: 2018an % 6,1, 2019an % 5,5, 2021ean % 5,2 eta 2022an % 4,6. Zifra hori 2010eko % 5,2aren azpitik dago.

Oso iraupen luzeko langabezia-tasaren bilakaerak antzeko dinamika bat erakusten du. 2005etik 2007ra bitartean % 0,8tik % 0,5era jaitsi ondoren, krisiak gorakada handia eragin zuen 2013ko % 6ra arte, eta, kasu honetan, 2015era arte luzatu zen, urte horretan % 6,9 izan baitzen. 2017an % 4,1era jaitsi ondoren, proportzioa % 4,4ra igo da 2018an, eta % 3,3ra jaitsi da 2019an, % 2,9ra 2021ean eta % 2,5era 2022an, 2010eko % 2,3ren mailatik hurbil kokatuz.


Nolanahi ere, datuek erakusten dute iraupen luzeko langabezia-moduen eragina handiagoa dela 2022an 2007an baino (% 4,6 eta % 1,2, hurrenez hurren, iraupen luzeko langabeziari dagokionez; % 2,5 eta % 0,5, oso iraupen luzeko langabeziari dagokionez).

Epe laburreko langabeziaren bilakaera zertxobait ezberdina da. 2005eko % 3,2tik 2007ko % 2,0ra jaitsi ondoren, tasak bat-batean gora egin du eta 2009an % 5,7ra iritsi da. 2010 eta 2011n % 4,8-4,9ko mailalara jaitsi ondoren, tasa % 6,1ekoa izan zen 2013an, hots, txosten honetan aztertutako aldiko zifrarik handiena. Orduetik aurrera, beheranzko joera hasi zen 2018ko % 4,2raino, eta 2019an % 4,0an egonkortzeko joera izan zuen. 2021ean, ordea, % 4,7raino igo zen. Hala ere, azken urtean % 4ra jaitsi da berriz ere, 2007tik izandako baliorik txikiena.

Nolanahi ere, 2010. urtean aldaketa handia gertatu da langabeziaren barne-konfigurazioan. Ildo horretan, 38. grafikoak erakusten du iraupen luzeko langabeziak % 40tik beherako pisua zuela 2009ra arte. 2010etik aurrera, gehiengoa izaten hasi zen, eta antzemandako langabezia-egoerak % 51,9 izan ziren. Proportzioa % 65,8ra igo zen 2014an. 2017ko % 57ra arte jaisten hasi bada ere, proportzioa egonkortu egin da orduetik aurrera: 2018an % 59,3 eta 2019an % 57,5. 2021ean, ordea, nabarmen behera egin du, eta % 51,7ra iritsi da. Azkenik, 2022an puntu bat baino gehixeago igo da, % 52,8ra arte.


---


<sup>10</sup> Iraupen laburreko langabezia-tasak erreferentziatzeko biztanleria aktiboan egoera horretan urtebete baino gutxiago daramaten langabeei egiten die erreferentzia; iraupen luzekoa erreferentziatzeko biztanleria aktiboan urtebete edo gehiago langabezia daramatenei; eta oso iraupen luzekoa egoera horretan bi urte edo gehiago daramatenei, aintzat hartutako biztanleria aktiboari dagokionez.



39. grafikoak erakusten du iraupen luzeko langabezia-tasaren inpaktua oso desberdina dela eskualde batetik bestera, eta mailarik baxuenak Debagoienean (% 2,2) eta Tolosa-Goierriin (% 1,2) daude. Proportzioa % 3,2-3,3 ingurukoa da Donostialdean eta Bizkaia-Kostan; % 4,3-4,8koa Durangaldean, Eskuinaldean, Gasteizen eta Debarrenean. Proportzioa argiago urruntzen da EAEko maila orokorrera (% 4,6) Ezkerraldean, Aiaran eta Bilbon, % 6,4-% 6,7rekin.

40. grafikoak, ordea, agerian uzten du lan-esperientzia osoaren falta eragin mugatuko arazoa dela Euskal Autonomia Erkidegoko langabeen artean. Proportzio handiena 2015ean lortu zen (% 12,5), eta 2022an % 8,4 izan zen; zifra hori 2005 eta 2007 artean nagusi zen % 7,0tik % 7,6ra bitarteko tartearen gaineratik dago.





## 18. Adina da enplegua lortzea zailtzen duen faktore nagusietako bat. Eragindako pertsonak 40 urtetik gorakoak dira batez ere

8. taulan, EAEn lan bila dabiltzan eta hurrengo 14 egunetan lan bila hasteko prest agertzen diren pertsonak dituzten muga nagusiak azaltzen dira, jarduerarekin gaur egun duten harremana edozein dela ere.

Ikus daitekeenez, 2022an aztertutako biztanleen % 92,2k aipatutako faktore mugatzaileetako bat aipatzen du. Eragozpen nagusiak kualifikazioari buruzko alderdiei dagozkie, eta ikasketa-mailarekin, hizkuntzak jakitearekin edo lan-esperientziarekin lotuta daude: kolektiboaren % 52,1ek aipatzen ditu inguruabar horiek. Aztertutako biztanleen % 24,9k aipatzen dute ikasketa-maila; % 27,6k lan-esperientzia aipatzen dute, eta % 12,5ek hizkuntzak.

Problematika horien inpaktuak eragin handiena du bigarren mailako ikasketen presentzian, ikasketa-maila hori duten eta prest dauden pertsonen % 59,7arekin; aldiz, lehen mailako ikasketen kasuan % 48,4 da, lanbide-ikasketak dituztenen kasuan % 47,2 eta unibertsitate-ikasketak dituztenen kasuan % 53,7.

Adina ere garrantzitsua da; faktore hori 2022an aipatu zuten enplegurako prest zeuden pertsonen % 29,1ek. Arazo horren eragina % 6,3 ingurukoa edo txikiagoa da 39 urtera arte. % 12,5era iristen da 40-44 urtekoen artean, eta 45 urtetik gorakoen artean nagusi bihurtzen da: % 39koa da 45-49 urtekoen artean, % 54,5koa 50-54 urtekoen artean, % 70,9koa 55-59 urteko pertsonen artean eta % 86,7koa 60-64 urteko pertsonen artean.

Lanerako prest dagoen biztanleriaren % 10,9k familia-kargei edo pertsonaren sexuari lotutako mugak aipatzen dituzte. Familia-kargek garrantzi handiagoa dute; izan ere, lan egiteko prest dauden pertsonen % 9,8k karga horiei egiten diete erreferentzia, eta % 1,3k, berriz, sexuari lotutako mugei.

Familia-kargen edo sexuaren arazoa adierazten duten eta lanerako prest dauden pertsonen proportzioa % 4,4ra baino ez da iristen gizonen artean, baina % 17,1era iristen da emakumeen artean. Ehuneko horiek hurbiltzeko joera dute aurreko urtearekin alderatuta (% 3-% 17,8). Egoera zibila eta seme-alaben presentzia kontuan hartuta, proportzioa % 5,2-8,2koa da seme-alabarik ez dagoenean, egoera zibila edozein dela ere. Proportzioa % 19,9ra

igotzen da seme-alaba bat duten ezkonduen artean, % 34,7ra egoera horretan dauden ezkongabeen artean, eta % 32,6ra bi seme-alaba edo gehiagoren aurrean, ezkondata ez dauden edo % 45era ezkondata dauden pertsonen kasuan.

Askoz maila txikiagoetan, aztertutako pertsonen % 2,3k jatorrizko herrialdeari lotutako mugak aipatzen dituzte, % 9k mugigarritasun geografikoaren ezintasuna, % 4,5ek muga fisikoak eta % 8,9k soldata-nahiak.


**8. taula. Lan bila ari den eta lan egiteko prest dagoen (kudeaketak egin edo ez) 16 eta 64 urte arteko biztanleria, enplegua lortzeko hautemandako mugen arabera. 2005-2022 aldia (taldearen %)**

Urtea	Ikasketa-maila %	Hizkuntzak %	Lan-eskarmentua %	Kualifikazioa/Esperientzia %	Familia-kargak %	Sexua %	Sexua/familia-kargak %	Soldata-nahiak %	Mugikortasun geografikoaren ezintasuna %	Adina %	Jatorri-herrialdea %	Muga fisikoa %	Mugarik gabe %
2005	33,9	24,5	36,3	67,2	13,1	5,0	17,4	13,4	15,1	24,9	3,4	2,8	6,4
2006	30,9	26,2	31,4	61,4	11,8	5,0	15,4	16,5	17,1	23,1	4,6	1,7	7,8
2007	28,9	22,8	32,1	61,9	16,4	4,5	19,8	14,8	13,5	23,5	6,0	3,1	11,5
2009	33,1	27,0	28,6	62,2	11,0	3,1	13,8	11,2	17,0	18,8	5,6	2,5	13,1
2010	38,6	27,1	37,8	68,4	14,1	4,0	17,8	10,4	18,6	32,9	7,0	3,0	8,4
2011	32,0	19,2	28,7	56,0	15,2	1,9	16,6	4,2	17,2	29,4	3,5	3,7	17,4
2013	29,3	38,4	25,4	62,3	13,0	1,8	14,5	6,3	18,6	31,0	6,3	2,7	13,2
2014	24,5	24,1	19,6	47,5	10,0	1,5	11,2	2,4	12,3	32,2	2,7	3,0	27,0
2015	22,0	23,2	25,9	51,1	10,0	1,4	10,9	4,3	14,1	25,4	6,1	0,0	22,4
2017	16,3	10,1	14,5	34,1	6,8	1,8	8,5	4,4	6,7	27,9	4,3	3,9	33,5
2018	22,0	7,3	15,0	35,8	8,1	2,3	10,2	1,6	3,0	35,0	6,8	3,8	29,8
2019	19,2	8,7	16,9	36,1	6,7	1,7	8,2	2,3	3,6	34,8	3,8	3,5	29,9
2021	27,0	16,1	26,3	53,1	9,4	2,4	11,2	4,8	8,2	32,0	4,1	5,0	24,1
2022	24,9	12,5	27,6	52,1	9,8	1,3	10,9	8,9	9,0	29,1	2,3	4,5	19,9

41. grafikoak eboluzioaren ikuspegitik aztertutako biztanleriari eragiten dioten faktore mugatzaile nagusiak ditu ardatz. Grafikoak erakusten du kualifikazioari eta esperientziari, edo sexuari eta familia-kargei lotutako mugek gero eta garrantzi gutxiago dutela.

Lehenengo kasuan, egiaztatu da kualifikazio- edo esperientzia-arazoez lanerako prest zeuden pertsonen % 60ri baino gehiagori eragiten zizela ia 2013ra arte. Proporzioak nabarmen egin zuen behera ondoren, 2014an eta 2015ean % 47,5-51,1eko mailetara iritsi arte. 2017tik aurrera, proportzioa % 34,1tik % 36,1ra artean jaisten da. Hala ere, 2021ean tasa hori % 53,1era igo da, 2013tik aurrerako balio handiena. Azkenik, puntu bat jaitsi da 2022an, %52,1era arte.

Sexuari eta familia-kargei dagokienez, eragindako pertsonen proportzioa % 16,6-19,8 bitartekoa izan ohi zen 2005 eta 2011 artean. Proporzioak murriztera egin zuen gero, ia modu jarraituan, % 10-11 inguruko mailetara iritsi arte, edo 2014tik aurrera horien azpitik ere bai. 2019an, % 8,2ko minimora iritsi zen, 2005etik aurrerako aldia kontuan hartuta. Azken aldietan, ordea, 2014ko mailetara itzuli da (% 11 inguru).




Bilakaera guztiz desberdina da adinaren faktoreari dagokionez. Enplegu bila ari diren eta enplegua lortzeko prest dauden pertsonen artean enplegua lortzeko muga gisa, faktore horrek pisua galtzeko joera zuen 2005 eta 2009 artean. Muga hori 2005ean lanerako prest zeuden pertsonen % 24,9k aipatzen zuten, baina 2009an soilik % 18,8k.

Hala ere, proportzioak gora egin zuen 2010 eta 2014 artean; aldi horretan, lanerako prest dauden pertsonen % 29,4 eta % 32,9 artean izan dira halakorik aipatu dutenak. 2015ean % 25,4ra jaitsi ondoren, proportzioak gora egin du berriro, eta % 35 inguruko mailetan kokatu da 2018an eta 2019an. Hala ere, 2021ean % 32ra jaitsi da, eta % 29,1era azken urtean.




42. grafikoaren arabera, adina muga gisa duten pertsonen % 11,3 baino ez dira 40 urtetik beherakoak. Gehienak (% 46,5) 50 eta 59 urte artekoak dira, eta % 22,4, 40 eta 49 urte artekoak. Gainerako % 19,9a 60-64 urtekoei dagokie, eta ehuneko hori ia hiru puntu igo da aurreko urtearekin alderatuta.



## SEXUAREN ARABERA ANTZEMANDAKO ALDAKETAK

### 19. Emakumearen pisua aurreneko aldiz jaitsi da biztanleria aktiboan. Emakumeak parekidetasun-egoera batean daude, lan-merkatuan duten presentziari dagokionez

43. grafikoak biztanleria aktiboaren urteko batez besteko hazkunde-tasaren bilakaera jasotzen du, sexuaren arabera, eta aktiboaren bolumenaren bilakaera desberdina erakusten du.



Alde batetik, 2005 eta 2022 artean, gizonezko biztanleen artean aktiboaren erorketa handiagoa izateko joera antzeman zitekeen. Urteko batez besteko jaitsierak  $-0,29\%$  izan ziren 2005 eta 2007 artean, eta  $-0,19\%$  2007 eta 2009 artean; 2009 eta 2014 artean  $-0,67\%$  izan ziren, eta 2014 eta 2019 artean, berriz,  $-0,60\%$ . Baina 2019 eta 2022 artean bariazio txikiago bat ikusten da, aldi horretan  $0,12\%$  jaitsi baita gizonen biztanleria aktiboa. Azkenik, azken urtean bariazio positiboa gertatzen da bi sexuen tasei buruz, eta nabarmenagoa da gizonen artean ( $0,81\%$ ).



Oro har, gizonen biztanleria aktiboa  $-7,4\%$  murriztu da 2005 eta 2022 artean. Aldi horretan, aktibo maskulinoen bolumenaren beherakadaren urteko batez besteko erritmoa  $-0,45\%$  da.

Bilakaera hori guztiz kontrakoa da emakumeen artean. Emakumeen kasuan, biztanleria aktiboa urteko  $1,01\%$  hazi da 2005etik 2007ra bitarte, 2007tik 2009ra bitarte urteko batez besteko  $4,34\%$  igo baino lehen, urte-bitarte hartan krisiak indartu egin baitzuen emakumea lanera hurbiltzeko prozesua. Urteko batez besteko  $1,22\%$  arekin, goranzko joerari eutsi zaio 2009 eta 2014 artean, eta moteldu egin da 2014 eta 2019 artean, urteko batez besteko  $0,47\%$  igoerarekin. 2019 eta 2022 artean, emakumeen biztanleria aktiboak  $0,13\%$  igoera izan du, eta azken urtean  $0,07\%$  baino ez da izan.

Oro har, 2005 eta 2022 bitartean, emakume aktiboaren kopuruak  $21,3\%$  egin du gora. EAEko emakume aktiboaren urteko batez besteko hazkundera  $1,14\%$  izan da aldi horretan.

44. grafikoak agerian uzten duenez, gizon aktiboen bolumenean izandako beherakada, hasiera batean, gizonen jarduera-tasen murrizketarekin lotuta dago, 2005-2007 aldian % 80,4-80,5 izatetik 2009 eta 2011 artean % 78,5-78,9 izatera. Tasa 2013an % 80,2ra eta 2014an<sup>11</sup> % 80,6ra igo arren, urte horretatik aurrera berriz ere beherazko joera ikusten da, 2017ko % 78,8ra arte. % 79,3ko gorakada txiki baten ondoren, tasa % 79,1ean egonkortu da 2019an, eta % 78,8an 2021ean. Azkenik, azken urtean tasa % 79,5era iritsi da, 2015etik aurrerako baliorik handiena.


Gizonezkoen artean hautemandako dinamikarekin alderatuta, goranzko joera gailentzen da emakumeen jarduera-tasaren bilakaeran. 2005ean % 58,4an kokatu zen, eta tasa ia ez zen igo 2007ko % 59,9ra arte, baina 2009tik 2011ra bitartean % 63,9-65,7ko zifretara igo zen. Igoera are handiagoa izan da 2013an: % 70,2k aurrera egiten jarraitzen du, 2015ean % 71,7ra iritsi arte. Susperraldi ekonomikoaren lehen fasearen ondorioz, tasa % 70,7ra jaitsi da, gorantz egiten hasi baino lehen, 2018ko % 72,4ra, 2019ko % 72,7ra, eta 2021 eta 2022ko % 73,5era arte.



<sup>11</sup> Hazkundera, neurri batean, 2013. eta 2014. urteetan prest dagoen biztanleria ez-aktiboaren bolumenak izandako beherakadarekin lotuta dago.

Jarduera maskulinoaren eta femeninoaren dinamika desberdina nabarmen agertzen da 45. grafikoan kontuan hartzen direnean EAEko biztanleria aktiboan emakumeen pisuan gertatzen diren aldaketak. 2005ean % 41,5ean kokatuta, emakumeen proportzioa 2007ko % 42,1era igo zen, eta 2009an, berriz, % 44,3ra iritsi zen, eta laster % 45era, 2011n. 2013an beste aurrerapen nabarmen bat ikusi zen, biztanleria aktibo osoan % 46,4 emakumeak baitziren. Adierazlearen aurrerapena, apala baina progresiboa, mantendu egin da ordutik aurrera, 2021eko % 48,4ra iritsi arte. Hala ere, azken urtean bi hamarren jaitsi da (% 48,2), eta hori ez zen lehenago gertatu serie historikoan.

46. grafikoak erakusten duen bezala, biztanleria aktiboko emakumeen proportzioan izandako aurrerapen handia hainbat eskualdetan antzematen da. 2022an, % 48,5etik gorako zifrekin, emakumeak biztanleria aktiboan duen parte-hartze handiena Bizkaiko hiru eskualdetan gertatu da (Ezkerraldea, Eskuinaldea eta Bilbo), eta nabarmentzekoa da Eskuinaldearen datua, biztanleria aktiboan emakume gehiago baitaude gizonak baino (% 50,4). Proportzioa % 48,0 eta % 48,5 artekoa da Aiaran, Donostialdean eta Bizkaia-Kostan. Gainerako eskualdeetan proportzioa % 48tik beherakoa da, eta Tolosa-Goierriko minimoa da nabarmena, 16-64 urteko eskualdeko biztanleria aktiboaren % 45,8 baino ez baita.




**20. 2005 eta 2022 artean, emakumeen okupazioak kasu guztietan hobeto betetzen du zikloa gizonen okupazioak baino. 2022an, okupazioaren % 48,2 emakumeena da**

47. grafikoak agerian uzten du EAEn okupazioak azken hamabost urteetan izan duen bilakaeraren alderdirik deigarrienetako bat: emakumeen okupazioa ziklo ekonomikora hobeto egokitzen dela.


Hori agerian geratzen da, alde batetik, aldi hedakorretan emakumeen okupazioaren igoera handiagoa dela antzematean: urtean batez beste % 2,13; gizonezkoek, berriz, % 0,54, 2005 eta 2007 artean; % 1,95 eta % 0,87, 2014 eta 2019 artean.

Bestalde, atzeraldi-faseetan okupazioaren beherakadarekiko erresistentzia handiagoa izan dela ikus daiteke. 2007. eta 2009. urteen artean, bilakaera guztiz desberdina izan da: urteko % 2,13ko igoera izan du emakumeen artean; gizonen artean, berriz, -% 3,71ko beherakada handia izan da. 2009tik 2014ra bitarteko krisialdi finkatuan, beheranzko joera orokortu egin da, baina, oraindik ere, eragin negatibo askoz handiagoa izan du gizonen enpleguan: -% 2,16, -% 0,59ren aldean, emakumeen artean. Haren portaera ere hobea da 2019 eta 2022 artean: % 0,47 batetik eta % 0,17 bestetik.



Ondorioz, sexuaren arabera okupazioaren bilakaera guztiz ezberdina izan da 2005 eta 2022 artean: gizonen okupazioa -% 11,8 jaitsi zen 2022an, 2005ekin alderatuta (urteko batez besteko erritmoa aldi horretan -% 0,74 izanik), eta emakumeen okupazioa % 18 igo zen (urteko batez besteko erritmoa % 0,98 izanik).


48. grafikoa ikus daitekeen bezala, okupazio maskulinoaren eta femeninoaren koefizienteen dinamika konparatuaren gaineko inplikazioak oso garrantzitsuak dira.



Alde batetik, emakumeen okupazio-koefizientea nabarmen igo da 2005 eta 2009 artean, eta aldi horretan % 54,8tik % 58,8ra igaro da. 2011n, egonkortu egin zen, apur bat behera, % 58,5ean; ondoren, emakumeen okupazioaren susperraldia hasi zen eta, beraz, adierazlea % 59,2ra pasa zen 2013an, eta % 59,8ra 2014an. Lehen aldiz gainditu da 2015ean % 60ko atalasea, % 61,4rekin, zeinak progresio azkarrari eusten baitio 2018an % 65,1era arte. Igoera mantendu egin da 2019an eta 2022an, eta LMEan ikusitako mailarik altuenera iritsi da, urte horretan % 67 izanik.


Aldiz, 2005ean % 77,3 izatetik 2007an % 78,6ko gehieneko balioa izatera igaro ondoren, koefiziente maskulinoa 10,5 puntu inguru murriztu da krisialdian, eta % 67,9-68,1 inguruan geratu da 2013 eta 2015 artean. Susperraldi ekonomikoak gorakada ekarri du: 2017an % 70era itzuli da, eta, ondoren, 2019an % 71,6ra igo da. Ondoren, 2021ean % 71,2raino jaitsi zen, eta azken urtean % 72,6raino igo zen. Hobera egin duen arren, 2022ko gizonezkoen okupazio-koefizientea 6 puntu beherago dago 2007ko % 78,6a baino. 2022an, ordea, emakumeen % 67k 9,6 puntuz gainditzen du 2007ko % 57,4.

49. grafikoak erakusten duen bezala, biztanleria aktiboarekin gertatzen den bezala, lehen aldiz jaitsi da emakumeek Euskadiko okupazioan duten parte-hartzea. 2005-2007 aldiko guztizko okupazioan emakumeari zegozkion % 41-41,7ko zifrekin alderatuta, emakumeen okupazioaren proportzioa % 44,6-45,2ra igo zen 2009 eta 2011 artean, % 46,3-46,6ra 2013 eta 2014 artean eta % 47,3-47,4ra 2015 eta 2017 artean. Proportzioak % 47,9ko maila gorena lortu zuen 2018an, proportzio horri eutsi dio 2019an, eta apur bat gora egin zuen 2021ean, % 48,2ra arte. Azken urtean, ordea, pixka bat jaitsi da, % 48,1era arte.




50. grafikoak erakusten du emakumeak gero eta pisu handiagoa duela okupazioan EAEko eskualde guztietan. 2022an, emakumeen partaidetza % 50,9ra iritsi da Eskuinaldean, % 48,3tik % 48,6ra Ezkerraldean, Aiaran eta Bilbon, eta % 48,3ra Donostialdean; eskualde horietan guztietan, EAE osoaren % 48,1 berdindu edo gainditu egiten da.

Proportzioa % 46,5 eta % 47,6 artekoa da EAEko gainerako eskualdeetan; salbuespena Tolosa-Goierrri da, berriz ere. Eskualde horretan, emakumeek okupazioan duten partaidetza jaitsi da, eta % 45,3an kokatzen da.



## 21. Langabeziaren eragina handiagoa da 2005-2022 aldian gizonen artean. Langabezia-tasa gehiago jaitsi da emakumeen artean azken aldian.

Okupazioaren dinamikan alde handiak egon arren, 51. grafikoak erakusten du langabeziaren bilakaera oso hurbil dagoela gizonen eta emakumeen artean.




Hala, 2005 eta 2022 bitartean, langabezia-bolumenak gora egin du, urteko batez besteko % 4,10 gizonen artean, eta % 3,24, ordea, emakumeen artean. 2005eko zifrarekin alderatuta, 2022an langabezia % 98 handiagoa da gizonen artean, eta % 72 handiagoa emakumeen artean. Emakumeari dagokionez, emakumeen okupazioaren bilakaerarik onena emakumeen biztanleria aktiboaren gorakadak arindu du. 2007. eta 2009. urteen arteko industriaren eta eraikuntzaren krisia dela eta, gizonen artean langabezia askoz ere gehiago hazi da (+% 93,89 urtean batez beste, eta emakumeen artean, berriz, % 46,94). Hala ere, goranzko joera duen emakumeen biztanleria aktiboaren eta enplegu-krisi handiko testuinguru baten arteko aldeak esan nahi du emakumeen langabezia-bolumenak hazkunde handiagoa izan duela krisiaren fase nagusian, 2009 eta 2014 artean: urtean batez beste % 16,01 emakumeen artean eta % 10,71 gizonen artean.

Susperraldian emakumeen okupazioak bilakaera konparatu hobea izan duen arren, gainera, emakumeek biztanleria aktiboari egiten dioten ekarpenaren joera goranzkoa da berriz ere 2014tik aurrera, eta dinamika hori ez da hain onuragarria emakumeentzat. Hala, 2014 eta 2019 urteen artean, langabezia apur bat nabarmenago murriztu da gizonen artean: - % 10,40, -% 9,16ren aldean

Azkenik, azken aldian jaitsiera bat gertatu da, txikiagoa gizonen kasuan: % 3, emakumeena hau delarik: % 3,17.


Horren ondorioz, azken urteetan emakumeen pisua handitu egin da langabeen artean, 52. grafikoak agerian uzten duenez. Hala ere, azken urtean beherakada handia gertatu da pisu horretan.





Industriaren eta eraikuntzaren krisiaren dimentsio maskulinoak, hasiera batean, emakumeen langabeziari egindako ekarpenaren beherakada bortitza ekarri zuen: 2005 eta 2007 artean % 52,1etik % 55era jaitsi zen, eta emakumearen ekarpen hori % 41,3ra jaitsi zen 2009an. Proportzio hori zertxobait handiagoa zen 2010ean eta 2011n, % 43,6rekin. Proportzioa % 47,2ra igo zen, ordea, 2013an. % 45,7raino jaitsi ondoren, proportzioa % 47,7ra igo da 2017an, eta aldi baterako jaitsiera berri baten ondoren (2018ko % 46,9ra arte), 2019ko % 48,7ko maximora iritsi da finantza-krisiaren ondoren. 2021ean, maximo berri batera iritsi zen, % 50 gaindituta. Azkenik, 2022an behera egin du, eta % 48,6ra iritsi da.

Nolanahi ere, 53. grafikoak agerian uzten duen bezala, finantza-krisiaren ondorengo langabezia-tasaren dinamikak paralelismo handia erakusten du gizonen eta emakumeen artean, biztanleria aktiboaren bilakaerari dagokionez, faktore horrek presio handiagoa du emakumeen artean (mekanismo horren bidez konpentsatuz gizonen okupazioaren bilakaera okerragoaren eragina).



2005 eta 2007 artean, langabezia-tasen beherakada ageri izan zen gizonen eta emakumeen artean, baina tasa horiek beti nabarmen handiagoak izan ziren emakumeen artean (1,7 eta 2,2 puntu artean, 2007an % 2,4 izan baitziren gizonezkoak eta % 4,1 emakumezkoak).

Gizonen okupazioak 2007 eta 2009 artean izan zuen beherakada handiak, ordea, gizonen artean langabezia-tasa zertxobait handiagoak ekarri zituen: % 9,2 eta % 8,1, 2009an; % 10,2 eta % 9,7, 2010ean; eta % 11,5 eta % 10,9, 2011n.


Gizonen okupazioaren bilakaera okerragoa mantendu arren, 2011 eta 2014 artean gizonezkoen eta emakumezkoen biztanleria aktiboaren bilakaerak kontraste handia izan zuen, urteko batez besteko beherakada -% 0,80koa izan baitzen gizonen artean, emakumeen batez besteko igoeren ondorioz (+% 1,40). Hala ere, emakumeen langabezia-tasa gizonena baino zertxobait handiagoa izan zen 2013an eta 2014an (% 15,6 eta % 15,1, hurrenez hurren; eta % 16,0 eta % 15,8, hurrenez hurren). 2014 eta 2015 artean soilik, emakumeen okupazioaren hazkundearen alde nabarmena (% 2,32 emakumeen artean eta -% 0,51 gizonen artean) nahikoa da emakumeen biztanleria aktiboaren goranzko eragina konpentsatzeko eta emakumeen langabezia-tasa gizonezkoena baino txikiagoa izateko 2015ean: % 14,4, % 15,2ren aldean.

Gizonen okupazioak hobera egin du, eta emakumeen jarduerak gora egiten jarraitu du 2015 eta 2022 artean. Hori dela eta, aldi horretan oso gertu daude sexuaren araberako tasak, nahiz eta langabeziak eragin erlatibo handiagoa izateko joera izan emakumeengan. Hala, 2022an, emakumeen langabezia-tasa gizonena baino zertxobait handiagoa izan da (% 8,8 eta % 8,6, hurrenez hurren).

Elementu komun gisa, bestalde, 2022ko langabezia-tasek 2007ko erregistroak gainditzen dituzte bi sexuetan (% 8,8 eta % 4,1 emakumeen artean; % 8,6 eta % 2,4 gizonen artean). Okupazioaren bilakaera okerragoaren ondorioz, 2022ko eta 2007ko tasen arteko aldea handiagoa da gizonen kasuan.

## **22. Eskualdeko gizonen eta emakumeen langabezia-tasak antzekoak dira, baina aldeak daude eskualdeen artean.**

2022an, gizonen eta emakumeen langabezia-tasak, oro har, nahiko hurbil zeuden eskualde guztietan. 54. grafikoan ikus daitekeen bezala, hala ere, eskualde-egoerak desberdinak dira: eskualde batzuetan emakumeen langabezia-tasa gizonezkoena baino nabarmen txikiagoa da (Gasteiz, Aiara edo Eskuinaldea), eta beste batzuetan gizonena baino ehuneko puntu bi edo gehiago handiagoa (Bizkaia-Kosta, Tolosa-Goierri eta Durangaldea).



Langabezia-tasa 2022	Bizkaia											
	Bilbao	Eskuinaldea	Kosta	Ezkerraldea	Donostialdea	EAE	Gasteiz	Durangaldea	Aiaraldea	Debabarrena	Tolosa-Goierri	Debagoiena
Gizonezkoak	9,3	9,4	4,8	10,3	7,7	8,6	9,7	8,8	14,0	10,1	4,0	6,0
Emakumezkoak	10,2	7,4	7,7	10,7	7,2	8,8	7,8	11,3	12,2	11,4	6,2	5,7
Okupazioaren %, zerbitzuz besteko sektoreetan	18,4	19,7	26,3	25,6	25,8	27,0	29,1	32,5	34,5	42,3	42,5	46,0


Esku hartzen duten faktoreak askotarikoak diren arren, garrantzitsua da okupazioak zerbitzuetakoak ez diren sektoreetan duen eragin konparatua. Horrela, sektore horien pisua oso mugatua den eremuetan, % 30etik beherako zifrekin, joera da emakumeen langabeziaren eragina gizonena baino txikiagoa izatea.

Hori bereziki nabarmena da Donostialdean edo Eskuinaldean, emakumeen langabezia-tasak gizonenak baino txikiagoak baitira. Hala ere, kontrakoa gertatzen da Bizkaia-Kostan, Bilbon eta Ezkerraldean.

## ADINAREN ARABERA ANTZEMANDAKO ALDAKETAK

### 23. Biztanleria aktiboaren zahartze-prozesuak jarraitzen du, eta 35 urtetik beherako kolektiboaren zati handi batek nabarmen behera egin du 2005 eta 2022 bitartean



Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria aktiboaren zahartze-prozesua gailentzen da 2005-2022 aldian<sup>12</sup>. 55. grafikoak agerian uzten duen bezala, talde gazteenek aktiboaren bolumena galdu besterik ez dute egiten. Aldi horretan biztanleria aktiboaren beherakada -% 26,8koa izan da 16 eta 24 urte artekoen kasuan, eta -% 37,4koa 25 eta 34 urte artekoen kasuan. Joera, ordea, apur bat goranzkoa da 35 eta 49 urte arteko pertsonen artean, aktiboaren bolumena % 2 igo baita. Hazkunderik handiena, hala ere, baby boometik datozen belaunaldi zabalei dagokie, 50 urte eta gehiagoko biztanleria aktiboa % 80,4 igo baita.



56. eta 57. grafikoek biztanleria aktiboaren banaketan izandako aldaketa garrantzitsuak erakusten dituzte, talde gazteenek biztanleria horri egindako ekarpena nabarmen jaitsi baita. Hala, 2005ean 35 urtetik beherako pertsonen biztanleria aktiboan zuten % 37,7ko ekarpenaren aldean, proportzioa etengabe murriztu zen, 2017an % 23,1era iritsi arte. 2017tik 2022ra soilik ikus daiteke proportzioa nolabait egonkoritu egin dela: 2019an % 22,6, 2021ean % 22,7 eta 2022an % 23,4.

Kontraste handia eginez, 50 urtetik gorako pertsonen biztanleria aktiboari egiten dioten ekarpena etengabe hazten ari zen 2021ra arte. 2005 eta 2007 artean % 21,1etik % 22,2ra igo ondoren, kopuruak nabarmen egin du gora 2013ko % 29ra arte. Joera 2021eko % 36,6ko maximora arte mantentzen zen. Hala ere, 2022an hamarren bat jaitsi da, % 36,5era arte.

<sup>12</sup> Prozesu hori lotuta dago EAEn 70eko hamarkadaren erdialdetik ikusten den ugalkortasunaren beherakada historikoarekin. Beherakada horrek 1994-1995ean Ugalkortasunaren Adierazle Sintetikoaren gutxieneko mailetara eramane zuen, emakumeko 0,90 seme-alabatik gorako kopuruetara ia. Prozesu hori erabat kontrajarria da garapen-garaiko baby booma sortu zuenarekin, 1976an emakume bakoitzeko 2,83 seme-alabako kopuruak eragin baitzituen.




Talde gazteenen kasuan, posizioen galera nabarmenena 25 eta 34 urte arteko pertsoneri dagokie. Kasu horretan, biztanleria aktiboari egindako ekarpena modu jarraituan jaitsi da, 2005ean % 30,0 izatetik 2017an eta 2018an % 18,6 baino ez izatera; ondoren, berriz ere jaitsi da, 2021eko minimora (% 17,4) iritsi arte. Hala ere, 2022an ehuneko hori % 17,9ra arte igo da.


Ekarpenaren beherakada zertxobait arinagoa da 25 urtetik beherako pertsonen artean, nahiz eta hori ere esanguratsua den. Horrela, EAEko biztanleria aktiboari egindako ekarpena 2005ean % 7,8 izatetik 2013an % 4,1 izatera igaro da. 25 eta 34 urte arteko taldean ez bezala, urte horretatik aurrera susperraldi txiki bat ikusten da, 2018ko % 4,8ra arte luzatzen dena, 2019an % 4,7an, 2021ean % 5,3an eta 2022an % 5,4an egonik.

35 eta 49 urte arteko pertsonen dagokienez, biztanleria aktiboari egiten dioten ekarpena 2005eko % 41,1etik 2013ko % 44,9ra igo da. Hortik aurrera, haren ekarpenak behera egin du pixka bat, 2019an % 43ra iritsi arte. 2022an, ordea, % 40,1eko minimora iritsi da.

Prozesu horren ondorioz, biztanleria aktiboaren batez besteko adina etengabe handitu da, 2005ean 39,4 urte izatetik 2022an 44 urte izatera igaro baita.

Garrantzitsua da ikustea hautemandako joerak ez direla soilik oinarritzen kolektiboaren guztizko biztanleriaren bolumena zehazten duten faktoreetan. Ildo horretan, 58.a grafikoak erakusten du 25 urtetik beherako biztanleria aktiboaren beherakada gazteen jarduera-tasaren beherakadarekin ere lotzen dela. Tasa hori % 39,7an zegoen 2005ean, eta % 27,4-27,1era jaitsi zen 2011 eta 2013 artean. Susperaldi ekonomikoarekin lehen gorakada izan ondoren, 2015eko % 30,7ra arte, tasak beheranzko joera berreskuratu du berriro, 2019ko % 27,5era arte, berriz ere 2011 eta 2013 arteko minimoen antzeko mailetan. 2021ean eta 2022an, ordea, % 30,2ra igo da, 2015eko mailatik gertu.






Intentsitate txikiagoarekin bada ere, 58.b grafikoak erakusten du 2005-2011 aldiko jarduera-tasak beheranzko joera duela 25 eta 34 urte arteko pertsonen kasuan. Kasu horretan, 2005eko % 87,5eko tasatik 2011ko % 85,7ra igaro da. Berriz ere, tasak gora egin du susperraldiaren hasierako fasean, 2014an % 89,4ra eta 2015ean % 89,2ra iritsi arte. 2017an aldi baterako % 87,5era jaitsi ondoren, tasa 2018ko % 90era igo da, 2019ko % 88,3ra eta 2021eko % 87,5era jaitsi aurretik. 2022an, azkenik, % 88,2ra igo da. 2022ko jarduera-tasak 2005-2007 aldikoak baino askoz txikiagoak diren arren, 25 eta 34 urte artekoen artean, 2022ko jarduera-tasa 2005-2007 aldiko % 86,8-87,5eko mailak baino zertxobait handiagoa da.

Hala ere, kasu honetan ere, deigarria da konparatiboki bilakaera negatiboa ageri dela 35 eta 49 urte arteko biztanleriarekin alderatuta. 2005ean, 25 eta 34 urte arteko pertsonen jarduera-tasa nabarmen handiagoa zen 35 eta 49 urte artekoen taldean baino (% 87,5 eta % 83,1, hurrenez hurren). Azken talde horretako jarduera-tasaren goranzko joerak, ordea, % 86,5-86,7 inguruko hurbilketa ekarri du 2010. urtean; urte horretatik aurrera, tasa sistematikoki handiagoak hauteman dira 35 eta 49 urte arteko taldean. Bereziki deigarria da 2011 eta 2013 artean talde horretan izan den igoera, % 86,9tik % 91ra. 2017ko % 89,8ra arteko murrizketaren salbuespenarekin, 35 eta 49 urte arteko pertsonen jarduera-tasak 2022ko % 91,0tik % 91,4ra arteko tarteari eutsi dio 2013tik aurrera. Tasa hori 7,3 puntu altuagoa da 2005ean erregistratutako % 83,1 baino.

Nolanahi ere, 58.c grafikoak berresten du azken hamabost urteetako jarduera-tasaren igoerarik handiena 50 urtetik gorako pertsonen dagokiela. Kasu horretan, tasak aurrerapen txikia erakusten zuen 2005 eta 2007 artean (% 52,2tik % 53,6ra), baina % 57,7ra igo zen 2009an, eta % 66,5era iritsi zen 2013an. Urte horretatik aurrera, goranzko erritmoa moteldu egin zen, eta 2017ko % 69,3ra iritsi zen. Urte horretatik aurrera, berriz ere bizkortu egin zen tasa: 2021ean % 75,3eko

maximora iritsi zen. Hala ere, 2022an pixka bat murriztu da, % 75,2raino, 2005eko erregistroa baino 23 puntu gehiago.




#### 24. Biztanleria aktibo gaztea erori arren, 35 urtetik beherako biztanleriaren okupazioaren galera konparatiboki handiagoa da

59. grafikoko datuek erakusten dute, adin-talde guztietan, okupazioaren bilakaera ez dela biztanleria aktiboaren dinamikari dagokiona bezain handia. Hala, lanpostu berriak sortzeko prozesuan parte-hartze handiena duten taldeetan ere, 2005-2022 aldiko okupazioaren igoera biztanleria aktiboari dagokiona baino txikiagoa da (-% 2,9 eta % 2,9, hurrenez hurren, 35 eta 49 urte arteko pertsonen artean; % 69,3 eta % 80,1, hurrenez hurren, 50 urtetik gorakoaren artean).



Egitate deigarriena da, hala ere, talde gazteenetan 2005-2022ko biztanleria aktiboaren beherakada handiak okupazioari dagokionez posizio hobea ez eragiteaz gain, okupazioaren jaitiera are deigarriagoak eragiten dituela. Horrela, 16 eta 24 urte arteko pertsonen kasuan, aldi horretako okupazioa -% 35,7 jaitsi zen, biztanleria aktiboaren bolumenaren --% 28,8ko murrizketaren aldean; beherakada -% 43,2koa izan zen okupazioan -% 39,5ekoaren aldean, 25 eta 34 urte arteko pertsonen kasuan.





Horren ondorioa biztanleria aktiboan okupazioaren banaketari dagokionez ikusitakoaren oso antzekoa da, 60. eta 61. grafikoetan ikus daitekeen bezala. Bereziki, deigarria da 35 urtetik beherako biztanleek, 2005ean okupazioen % 36,7 biltzen zutenek, okupazioari egiten dioten ekarpena etengabe murriztu izana 2015eko % 22,2ra arte. Proportzioa 2018ra arte % 22 inguruko mailetan egonkortu ondoren, berriz ere behera egin du, 2019an % 21,3ko minimora iritsi arte. 2021ean, apur bat hazi da, % 21,7ra iritsi arte, eta 2022an % 22,3ra.

Gutziz kontrakoa da 50 urte eta gehiagoko pertsonen bilakaera. 2005 eta 2007 artean % 21,7tik % 22,5era aldatu ondoren, EAEko okupazioan duen pisu erlatiboak etengabe gora egin du ordutik aurrera, 2021ean % 37,3ra iritsi arte, eta 2022an apur bat jaitsi da, % 37,1era arte. 50 urtetik gorako biztanleek okupazioan duten pisuak lehen aldiz gaintitzen du 35 urtetik beherako kolektiboarena 2011tik aurrera (% 28,3 eta % 26,7, hurrenez hurren).





Biztanleria gaztearen barne-dinamika ere biztanleria aktiboari dagokionez antzemandako horren antzekoa da. Horrela, 25 eta 34 urte arteko pertsonena da beherakada nabarmenena eta jarraituena. 2005ean zegokien okupazioaren % 29,5aren aurrean, proportzioa % 17ra murriztu zen 2021ean. 2022an, ordea, % 17,5era igo da.

25 urtetik beherako biztanleen kasuan, okupazioan zuten pisua % 7,3tik % 3,3ra jaitsi zen 2005. urtearen eta 2011-2013 biurtekoaren artean. Harrezkero, 2017ko % 4,1era igo zen, 2018ko eta 2019ko % 3,9ra jaitsi aurretik. 2021Ean eta 2022an, ordea, % 4,7ra arte hazi da, eta hori izan da 2009az geroztiko baliorik handiena.

Bestalde, 35 eta 49 urte arteko pertsonen pisu erlatiboak gora egin zuen 2005 eta 2014 artean, % 41,5etik % 45,5era. Hortik aurrera, proportzioa etengabe murrizten da 2022ko % 40,7ra arte, serie historikoko proportziorik txikiena.

Kolektibo gazteenen okupazioaren bilakaera negatiboa nabarmena da okupazio-koefizienteen dinamikan. 16-24 urteko biztanleen kasuan, 62.a grafikoak erakusten du pertsona okupatuen proportzioa egonkor mantendu zela 2005 eta 2007 artean, konparatiboki oso maila baxuetan (2005ean % 35,3 , 2006an % 35,8 eta 2007an % 35,1).

Krisiaren eragina deigarria da talde horretan, okupazio-koefizientea pixkanaka jaitsi baita 2011ko % 18,1era arte. Urte horretatik aurrera gora egin duen arren, susperraldia oso mugatua da, eta % 22,3ra baino ez da iristen 2017an. Urte horretatik aurrera, gainera, koefizienteak behera egin du berriro, % 20,7ra arte 2019an. Hala eta guztiz ere, azkenaldi horretan igoera nabarmen bat gertatu da, % 23,9ra iritsita, eta hori izan da 2009z geroztiko baliorik handiena. Proportzio hori 2022an mantendu da eta 2005eko % 35,3 baino 11,4 puntu txikiagoa da oraindik.




Nahiz eta intentsitate txikiagokoa izan, okupazio-koefizientearen jaitsiera-lerroa gehiago luzatzen da krisialdian, 25 eta 34 urte arteko biztanleriari dagokionez. 62.b grafikoan ikus daitekeen bezala, kasu honetan adierazlea % 81,8tik % 83,8ra igo zen 2005 eta 2007 artean, 2009an % 76ko mailetara bat-batean jaitsi aurretik, eta maila hori egonkortu egin zen 2010ean. 2011n beherakada handi eta berri bat izan ondoren (% 72,5), beheranzko joera apalago luzatu da 2014ko % 70,0ra arte.

Hala ere, gazteen talde horrek etekina atera dio 2014. urtearen ondorengo susperraldiari, eta okupazio-koefizientea % 79,3ra igo da 2018an. 2019an, ordea, beste beherakada bat izan da, % 77,4koa; eta horri jarraipena eman zitzaion 2021ean, % 76,8ra iritsi arte. Azken urtean, ordea, % 78,8ra igo da. Proportzio hori 2007ko % 83,8 baino 5 puntu baxuagoa da, eta 2005eko % 81,8 baino 3 puntu baxuagoa.

Adin-talde gazteenen okupazioak izan duen bilakaera alderatua txarragoa izan denez, kasu honetan, 35 eta 49 urte arteko pertsonen okupazio-koefizienteak 25 eta 34 urte arteko taldearena gainditu du 2009an (% 79,8 eta % 76, hurrenez hurren). 2005 eta 2007 artean, talde horrek talde gazteenaren bilakaera jarraitu zuen, eta bere okupazio-koefizientea % 79,8tik % 82,2ra igo zen, betiere proportzio txikixeagoekin 25 eta 34 urte arteko pertsonena baino. Krisiak gazteengan izan duen inpaktu askoz ere handiagoak, hala ere, koefizientea murriztu egin du kasu honetan, 2007ko % 82,2tik 2009ko % 79,8ra. Aldiz, beherakada handiagoa izan da 25 eta 34 urte arteko pertsonen artean, % 83,8tik % 76ra.

2011. urtera arte nolabaiteko egonkortasuna izan ondoren (% 79,3ko koefizientea urte hartan), proportzioak behera egin du berriro 2011 eta 2013-2014 bitartean, eta % 77,8-77,9ko zifrak izan ditu aldi horretan, 35 eta 49 urte arteko biztanleen artean. Koefizientea pixka bat igo zen ordutik aurrera, 2019an % 83,6ra iritsi arte. Hala ere, 2021ean % 82ra arteko jaitsiera gertatu da, eta bat-batean zuzendu da azken urtean, eta serieko baliorik altuenetara iritsi, % 84,6rekin.

Bilakaerarik onena berriz 50 urtetik gorakoek izan dute, 62.c grafikoan ikus daitekeen bezala.




2005 eta 2007 artean zertxobait gora egin ondoren (% 51tik % 52,6ra), ordutik aurrera, 50 eta 64 urte arteko pertsonen okupazio-koefizienteak gora egin du modu egonkorrean, 2018an % 64,7ra iritsi arte. 2018. eta 2022. urteen artean ere goranzko erritmoa berrabiarazi dela ikus daiteke, 2022an % 69,8ko okupazio-proporzioa izan baitzuen. Horrela, 50 urte edo gehiagoko pertsonen okupazio-koefizientea 2005ekoa baino ehuneko 18,8 puntu handiagoa da aurten.


Aztertutako bilakaeraren ondorioetako bat da biztanleria okupatuaren adinak nabarmen egin duela gora EAEn: 44,3 urte 2022an eta 39,6 urte 2005ean. Hala ere, azken aldiak murrizketa txiki bat gertatu da lehen aldiz, hamarren batekoa.

### 25. 35 urtetik gorako pertsonen okupazioak bilakaera hobea izan badu ere, EAEko demografia bereziak esan nahi du langabezia-tasa gero eta handiagoa dela kolektibo horretan

Euskal demografia desorekatuaren ondorioetako bat honako hau da: belaunaldi gazteen bolumenaren pixkanakako beherakadaren ondorioz biztanleria zahartzen ari denez, kolektibo zaharrenen okupazioaren hobekuntza nabarmena bateragarria da, kolektibo horien jarduera-tasen gorakada garrantzitsuak gailentzen diren testuinguruan, adin horietan langabeziaren problematikak nabarmen gora egitearekin. Hala, 2022ko langabezia-bolumena 2005ekoarekin alderatuz gero, 25 urtetik beherakoen arteko langabezia % 39 igo da, eta 25 eta 34 urte artekoen artean % 3,6 bakarrik, baina 35 eta 49 urte artekoen artean % 91,8 eta 50 eta 64 urte artekoen artean % 459,9. Kontuan hartuta 41.470 langabe gehiago daudela 2022an, 2005. urtearekin alderatuta, horien % 90,3 35 urtetik gorakoei bakarrik dagokie. Paradoxa hori bateragarria da 35 urtetik beherakoen langabezia-tasa konparatuen bilakaerarekin (askoz ere negatiboagoa da).

Lehenengo gaia 63. eta 64. grafikoetan ageri da xehetasunez. 64. grafikoak, bereziki, agerian uzten du EAEn 2010etik aurrera langabeziaren banaketan izandako funtsezko aldaketa.





Illo horretan, ikus daiteke 2005 eta 2009 artean 35 urtetik gorako pertsonen zegoen langabeziaren zatia gutxiengoa zela, nahiz eta garrantzitsua izan, 2005ean % 43,2 eta 2009an % 46,5 artean apur bat gora egin baitzuen. 2008ko finantza-krisiarekin batera gertatutako okupazio-krisiak aldatzen du egoera hori, 2010 eta 2011n % 50etik gorako zifrekin (% 54,4 eta % 53,2). Hala ere, atzeraldiaren bigarren fasearen ondorioz, 35 urtetik gorako pertsonen partaidetza oso handia da langabezia: 2013an, % 62,9 izan zen, eta 2015ean, berriz, apur bat jaitsi zen, % 60,7ra.


Susperraldi berriaren goranzko faseak ez du dinamika hori aldatzen; aitzitik, areagotu egiten du, 2017an 35 urtetik gorako pertsonen artean kontzentratuta langabeziaren % 69, eta proportzio hori pixkanaka murrizten da 2019ko % 64,8ra arte, eta 2021ean eta 2022an % 68,1era arte igotzen da. 35 urtetik gorako pertsonen langabeziaren banaketan duten pisuak nagusia izaten jarraitzen du.

Azpiko faktore nagusia 50 urtetik gorako pertsonen EAEn langabeziari egiten dioten ekarpen progresiboa da. 2005ean langabeen artean % 9,9 baino ez ziren, baina ordutik aurrera haien ekarpena etengabe hazi da. Hasiera batean, hazkundea apala izan zen, 2009an % 13,2koa, baina, ondoren, 2014ko % 22ra arte bizkortu zen. 2015eko % 21,6ra arte egonkortu ondoren, proportzioa berriro igo da 2018ko % 27,2ko maximora arte, 2019an jaitsiera txiki bat izanik % 26,2raino. 2021ean gorakada handi bat gertatu zen % 29,9ra arte; horixe izan da serie historikoko altuena.

35 eta 49 urte arteko taldean, berriz, hasieran egonkortasun handiagoa zegoen langabeen artean, 2005-2009 aldiaren % 32 eta % 33,6 bitarteko zifrak izan baitzituzten. Proportzioa, ordea, % 38,3ra igo zen 2010ean, eta aldi baterako jaitsiera izan ondoren, % 34,2ra igo zen 2011n eta % 42,4ra 2013an. Berriz ere beheranzko bidean 2015era arte, % 39,1ekin, 2017ko % 44,2ak adierazten du taldeak parte-hartze handiena duela langabeziaren banaketan. Ondoren, beherakada garrantzitsuak izan ziren 2021eta 2022eko % 38,2ra arte. Hala eta guztiz ere, proportzio hori 2009ko % 33,4a baino ehuneko 4,8 puntu handiagoa da.

Kolektibo gazteenen okupazioaren bilakaera txarraren ondorioz, 35 urtetik beherako langabezia-tasak nabarmen handiagoak dira, 65. grafikoan ikus daitekeen bezala.

Langabezia-tasei dagokionez, eragin gehien jasandako taldea 25 urtetik beherakoa da. Biztanleria aktiboari ekarpen txikia egiten dion arren, talde horretan okupazio txikia dagoenez, langabezia-arrisku handienetako bat da. Izan ere, 2005ean langabeziaren % 10eko atalasea (% 11,0) gainditzen zuen kolektibo bakarra zen, baina tasa ez zen % 8,3-8,0tik behera jaitsi 2006an eta 2007an. 2008 osteko enplegu-krisiak oso azkar ekarri zituen langabezia-tasa handiak, eta 2011-2015 aldian % 31,1 eta % 34,3 artean mantendu ziren. 2017an nabarmen hobetu ondoren (% 20,1), langabezia-tasak gora egin zuen berriro 2018an (% 26,7). Tasak hobera egin zuen 2019an eta, batez ere, 2021ean, % 19,6ra arte, eta 2022an % 20,9ra igo zen. Ehuneko hori 2009ko datua baino txikiagoa da.



Langabezia-tasaren bilakaera ere zaila da 25 eta 34 urte arteko pertsonen artean. Kasu horretan, 2005eko % 6,5eko tasatik 2007ko % 4,1era jaitsi da. Krisiak, ordea, kolektibo horren langabezia-maila % 12,2-12,3ra igoarazi zuen 2009an eta 2010ean. Ondorengo bilakaera are zailagoa da, gorakada handiak eta jarraituak izan baititu, 2014an % 21,7ko maximora iritsi arte, eta hobekuntza txikia izan du 2015ean, % 21,1era iritsita. Susperraldiaren ondorioz, tasa krisiaren hasieran ikusitako kopuruetatik hurbilago dago: % 13,7 2017an eta % 11,9 2018an. Hala ere, tasak zertxobait gora egin du 2019an eta 2021ean, eta % 12,2ra iritsi da, 2009an eta 2010ean ikusitakoaren oso antzera. Azkenik, % 10,7ra jaitsi da azken urtean. Kopuru hori 2007tik izandako txikiena da.

Maila baxuagoetan bada ere, bilakaera nahiko antzekoa da 35 urtetik gorako artean. 35 eta 49 urte arteko kasuan, 2005etik 2007ra bitartean behera egin ondoren (% 4,0tik % 2,4ra), tasa % 6,7ra igo zen 2009an, eta % 8,8ra 2010ean. Maila horretan jarraitzen du 2011n. 2011 eta 2013 artean, tasak gorakada handia izan du, % 14,4raino; 2014an, berriz, % 14,3koa da tasa, oso gertu kokatuta. Hortik aurrera, beherakada etengabea eta luzea izan da, 2019ko % 8,6ra arte. Hala ere, 2021ean % 9,4ra arteko igoera gertatu da, eta bat-batean eten da azken urtean, ia bi puntuko beherakada gertatu delarik, % 7,5era arte. Kopuru hori txikiena da 2009az geroztik.

50 urtetik gorako pertsonen kasuan, bilakaera antzekoa da. Langabezia-tasa % 2 ingurukoa zen 2005 eta 2007 artean. Krisialdian, tasa horrek gora egin du pixkanaka, bereziki 2011-2013 aldian, 2014an % 11,7ra iritsi arte. Beheranzko joera hortik aurrera hasten da, 2017an eta 2018an % 8,6-8,5eko mailara iritsi arte. Tasa zertxobait nabarmenago jaitsi da 2019an, urte horretan % 7,3koa izan baitzen. Hala ere, aurreko kasuan bezala, gorakada bat izan da 2021ean, % 8,2ra iritsi arte, eta 2022an, ordea, puntu bateko beherada gertatu da, % 7,2ra iritsi arte. Kopuru hori txikiena da 2010az geroztik.

## 26. Langabeziaren eragin desberdina ageri da adin-taldean eta eskualdeen arabera

Langabeziaren eragina oso desberdina da adin-taldean eta eskualdeen arabera, 9. taulan ikus daitekeen bezala.

**9. taula. 16 eta 64 urte arteko biztanleriaren langabezia-tasa, eskualdeen eta adin-talde handien arabera. 2022 (%-tan)**

	16-24 urte	25-34 urte	35-49 urte	50 urte eta gehiago
Gasteiz	20,8	5,9	9,4	7,9
Aiara	29,8	20,6	12,0	8,1
Eskuinaldea	18,3	8,0	7,4	8,6
Bilbo	25,6	12,3	8,0	8,0
Ezkerraldea	25,8	13,3	9,4	8,4
Bizkaia-Kosta	9,9	10,6	5,0	5,2
Durungaldea	34,4	18,4	6,8	4,5
Donostialdea	14,9	8,9	5,7	7,2
Tolosa-Goierrri	23,4	5,5	3,5	3,8
Debagoiena	7,2	15,1	5,1	2,3
Debarrena	22,6	13,8	9,7	8,3
<b>Guztira</b>	<b>20,9</b>	<b>10,7</b>	<b>7,5</b>	<b>7,2</b>

Taula horretako datuek, 2022rako, eskualde-mailako alderdi garrantzitsu hauek erakusten dituzte, adin-taldean arabera:

\* 25 urtetik beherako biztanleen langabezia-tasak oso handiak dira, % 20tik gorakoak EAEko eskualde gehienetan. Horren barruan sartzen dira Arabako eta Bizkaiko eskualdeak,



Eskuinaldea eta Bizkaia-Kosta izan ezik, bai eta Debarrena eta Donostialdea ere. Durangaldean soilik gaintzen dira % 30eko mailak.

Zifra txikiak % 9,9 dira Bizkaia-Kostan, eta gutxienean, % 7,2, Debagoienan.

- \* 25 eta 34 urte arteko pertsonen dagokien, tasak ez dira 25 urtetik behera adierazitako mailara iristen, baina maila handiak lortzen dituzte, % 10etik gorakoak eskualde gehienetan. Aiaran % 20 gaintzen da, eta horietako batzuetan, tasak % 15etik gorakoak dira, esaterako, Debagoienan (% 15,1) eta Durangaldean (% 18,4).

Lau eskualde % 10etik behera daude; horien artean, Tolosa-Goierri (% 5,5) eta Gasteiz (% 5,9) nabarmentzen dira.

- \* 35 eta 49 urte bitarteko pertsonen artean, tasek maila garrantzitsuak izaten jarraitzen dute Aiaran (% 12) eta, % 10eko atalasearen azpitik, Gasteizen (% 9,4), Ezkerraldean (% 9,4) eta Debarrenan (% 9,7). Gainerako eskualdeetan, tasak Bizkaia-Kostako % 5etik Bilboko % 8ra doaz. Azkenik, Tolosa-Goierriko % 3,5 nabarmendu behar da.
- \* 50 urtetik gorako biztanleen artean, eskualde gehienak Tolosa-Goierriko % 3,8tik Eskualdeko % 8,6ra artekoak dira. Tasarik txikiak Debagoienekoak da, % 2,3rekin.

Datuek aukera ematen dute eskualde-mota zehatz batzuk definitzeko, langabeziak 2022an eskualdeetan izan duen eragin diferentzialaren arabera:

- \* Durangaldean, gazteen langabezia-tasa eskualdeko maila gorenean dago: % 34,4. Batezbestekoaren gainetik, baita ere, 25 eta 34 urte arteko pertsonen langabezia-tasa, askoz handiagoa dena, % 18,4rekin. 35 urtetik gorako pertsonen langabezia-maila batezbestekoaren azpiko mailetan dago aldi berean.
- \* Aiaran, Bilbon eta Ezkerraldean ere gazteen langabezia-tasak batezbestekoa baino nabarmen handiagoak dira, eta nolabaiteko garrantzia dute 25 urtetik gorako adin-talde gehienetan. Aiarako tasa ere esanguratsua da talde horientzat.
- \* Tolosa-Goierri eta Debarrenak langabezia-arazo bat planteatzen dute, esanguratsua eta adinen arabera taldeetan hedatua. Eskualde horiek nabarmentzen dira gazteen langabezia-tasak % 20tik gorakoak direlako. Hala ere, 25 urtetik gorako langabezia-tasak oso desberdinak dira. Lehenengo kasuan, batezbestekoaren azpitik daude argi eta garbi, eta bigarrenean kontrako gertatzen da.
- \* Gasteizko eskualdean, gazteen langabezia-tasak batezbestekoaren antzekoak dira adin-talde guztietan, 25-34 urtekoen artean izan ezik, hori tasa batezbestekoaren ia erdia baita (% 5,9). Antzeko zerbait gertatzen da Eskualdean, non tasak, oro har, adin-tarte bakoitzaren batezbestekoa baino zertxobait txikiagoak baitira. Hori ez da 50 urtetik gorakoetan bakarrik gertatzen (% 7,9 eta % 7,2, hurrenez hurren).
- \* Egoera hobea da Donostialdean eta Bizkaia-Kostan. Bi eskualde horien artean Donostialdeak bakarrik gaintzen du % 10 gazteen langabezia-tasa (% 14,9 eta % 9,9, hurrenez hurren). 25

urtetik gorako pertsonen artean, langabezia-maila % 5 eta % 10,6 artekoa da, adinaren arabera.

- \* Azkenik, aipatu behar da Debagoienak batezbestekoaren oso azpitik dauden tasak dituela adin-tarte bakoitzean, 25-34 urtekoen artean izan ezik, non tasa batezbestekoa baino dezente handiagoa baita (% 15,1).

## NAZIONALITATEAREN ALDAKETAK

## ARABERA


## ANTZEMANDAKO

### 27. Atzerritar jatorriko biztanleen jarduera-tasa jatorri nazionaleko biztanleena baino ia bi puntu handiagoa da.

